



OÑATIKO NOKA

DIAGNOSTIKO- IKERKETA

- *Zenbat dira Oñatin noka dakiten emakumeak?*
- *Nola jaso dute hitanoa?*
- *Transmititu al dute?*

EGILEA

Idoia Etxeberria Elorza

idoia@ahotsak.eus

BADIHARDUGU ELKARTEA

Markeskua jauregia
Otaola hiribidea, 1

www.badihardugu.eus
943 121 775

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. AUZOZ AUZOKO DATU-BILKETA	4
METODOLOGIA	4
Informatzaileak.....	5
Datu-bilketaren ezaugarriak.....	5
EMAITZAK	7
Datu orokorrak	7
Auzoz auzoko datuak.....	13
INFORMATZAILEEN ESPERIENTZIA ETA IRITZIAK	26
2. ELKARRIZKETETAN OINARRITUTAKO IKERKETA	31
METODOLOGIA	31
Elkarrizketatuen perfilak	34
EMAITZAK	36
Alderdi kuantitatiboa.....	36
Alderdi kualitatiboa	42
3. LABURBILDUZ: DATU ESANGURATSUENAK	58
4. AMIA AZTERKETA	60
5. ONDORIOAK	63
6. ERANSKINAK	66
Noka gorde duten baserriak.....	66
Elkarrizketatuen zerrenda	73
Hitanoari buruzko galdetegia.....	76

SARRERA

Diagnostiko-ikerketa hau Oñatin nokaren egoera zein den jakiteko egin da, 2019. urtean zehar, Oñatin emakumeen hitanoa jaso eta biziberritzeko sortu den *“Ingo xonau!”* proiektuaren barruan. Izan ere, andrazkoen hika galtzen ari da gure herrian. Gaur egun hiztun gazteenek 50 urte inguru dituzte. Ezer egiten ez badugu, hamarkada gutxi barru desagertu egingo da.

“Ingo Xonau!” proiektuak hainbat fase izango ditu, eta diagnostikoa izan da lehenengo lanetako bat. Andrazkoen hika biziberritu ahal izateko, ezinbestekoa baita zer egoeratan dagoen jakitea: herrian zenbat emakumek dakiten noka, nongoak diren eta zer adinetakoak diren. Eta dakiten horiei nondik nora iritsi zaien hitanoa. Orain arte ez da halako ikerketarik egin, eta ez da langintza erraza, egia esan. Emakume batek noka dakien ala ez jakitea ez delako euskaraz dakien ala ez jakitea; eremu intimoko hizkera informala da noka, oso gertukoekin soilik erabiltzen dena.

Oñatiko herrigunean datu-bilketa egitea oso zaila denez, eta hitanoa ondoen baserri-auzoetan gorde denez, datu-bilketa Oñatiko 16 baserri-auzoetan egitea erabaki genuen. Horretarako, baserri-auzo horietako 13 informatzaile eta datu-biltzaileren laguntza izan dugu. Gaur egun auzo horietan bizi diren emakumeez gainera, kanpoan bizi direnak ere kontuan hartu ditugu; auzo batzuk apurka-apurka husten joan dira, baina askok hitanoa erabiltzen jarraitzen dute.

2019. urtean zehar Oñatin elkarrizketatutako 54 hikadunen datuak eta iritziak ere erabili ditugu diagnostiko-ikerketa hau osatzeko. Hala, transmisioari buruzko datu esanguratsuak lortu ditugu: noka nola jaso duten, transmititu duten ala ez, hitanoari eta nokari buruz duten ikuspegia eta transmisioaren etena ulertzeko hainbat gako.

Ikerketaren bi eremuak

1. **Datu-bilketa auzoz auzo.** Oñatiko 16 baserri-auzoetan egin da datu-bilketa, noka dakiten emakumeak zenbat diren jakiteko. Ikerketa kuantitatiboa bereziki.
2. **Elkarrizketatuen datuak.** 54 herritar elkarrizketatu ditugu, 52 emakume eta 2 gizonezko. Ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Ikerketaren helburuak

- Oñatiko nokaren egoera ahalik eta zehaztasun handienaz ezagutzea, kopuruen bidez. Dakiten emakumeak zenbat eta zein auzotakoak diren jakitea.
- Elkarrizketatutako nokadunen datuekin, hitanoaren gaineko pertzeptzioak, transmisioari buruzko datu zehatzak eta hizkuntza-ohiturak ezagutzea.
- Ikerketaren emaitzak eta ondorioak herritarrei helaraztea.
- Nokaren egoeraren inguruan hausnarketa eta kontzientziazioa eragitea.
- Oñatiko noka berreskuratzeko jarduerak egiteko oinarri teoriko bat jartzea.
- Hitanoa –noka zein toka- eta erregistro informalak indartzea, erdaren aurrean.
- Oñatiko euskararen bizitasuna bultzatzea.

1. AUZOZ AUZOKO DATU-BILKETA

1.1. METODOLOGIA


Oñatin emakume nokadunen kopurua eta bizilekua jakiteko, auzoz auzoko datu-bilketa egin dugu. Oñatin, erdiguneko auzoez gainera, 16 baserri-auzo daude: Arantzazu, Araotz, Uribarri, Lezesarri, Urruxola, Murgixa, Olabarieta, Berezaio, Garagaltza, Goribar, Zañartu, Torreauzo, Garibai, Santxolopetegi (Madalena), Zubillaga eta Larraña (Narria).



Baserri-auzoetan gorde da ondoen hitanoa, baserrietan, baina baserri-auzo batetik bestera ere aldaketa nabarmenak daude. Datu-bilketaren ezaugarriak eta zailtasuna aintzat hartuta, garrantzitsua iruditu zitzaigun auzoak ondo ezagutzen dituzten pertsonak parte hartzea ikerketan. Auzoan auzoko informatzaileak eta datu-biltzaileak topatzea, alegia. Auzotar horiek hika jakitea ere beharrezkoa iruditu zitzaigun, hikadunak errazago identifikatze aldera. Bestalde, auzo batzuetan -noka galduen dagoen auzoetan bereziki- informatzaileak emakumezkoak izatea ere lehenetsi genuen, emakume nokadunak bertatik bertara ezagutzen dituztelako.

Informatzaileak

Informatzaileen zerrenda, auzoz auzo:



Informatzaileak 13 izan dira guztira, 10 emakume eta 3 gizonezko. Informatzaile guztiek dakite hika eta ia denak dira auzoetakoak (nahiz eta batzuk gaur egun bertan bizi ez). Aipatzekoa da auzo batzuetan informatzaileak topatzea erraza izan dela, baina beste batzuetan ez, horrek dakartzan arazoekin. Beatriz Irizarri 7 auzotako datuak jasotzeko langintza ipini genion: Torreauso (bere auzoa) eta inguruko auzo guztiak, hain zuzen ere.

Borondatezko lana izan da, musutruk egin dutena, eta datu-biltzaile bakoitzak bere erritmorra eta bere erara egin du (batzuk baserriz baserri joan dira, beste batzuk telefono-deiak egin dituzte...). Datu-bilketaren prozesua aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da: 2019ko urtarriletik 2019ko urrira bitartekoa. Jasotako datuen analisisa, berriz, urria eta abendua bitartean egin dugu.

Datu-bilketaren ezaugarriak

Jakintza neurtzeko egina. Ez da erabilera neurtu, jakintza baizik. Noka jakitea, nahiz eta batzuek beharbada gaur egun ez duten erabiliko (edo oso gutxi). Adibidez, ahizpekin bakarrik erabiltzen zuena eta ahizpak hil zaizkiona; gaztetan erabiltzen zuena, baina hizkuntza-ohiturak aldatu dituen; etxean zuzenean noka jaso duena, baina ez daukana zeinekin erabili (gurasoekin ezin duelako egin).

Pertzeptzioetan oinarritua. Pertzeptzioetan oinarritutako datu-bilketa da. Hau da, noka dakien ala ez galdetuta, BAI ala EZ erantzun behar zuten. Erdibiderik gabe. Horregatik, posible da noka jakin baina erabiltzen ez duten biren erantzunak desberdinak izatea: hau da, batek baietz eta besteak ezetz erantzutea. “Ni ez kontau, ez dot ebalten ta!”; “Bai, bai, kontau! Jakin badakitt”. Bat datu-bilketan agertuko da; bestea, berriz, ez. Etxean (zuzenean edo zeharka) noka jaso duten neska gazte gehienak ere ez dira datuetan agertzen, erabiltzaile ez diren neurrian gehienetan ez dituztelako nokadun moduan ikusiko (ezta etxean bertan ere).

Egon dira, baita ere, ez dakitela esan dutenak, “inon agertu” nahi ez dutelako edo ez zaielako harrotasunerako motibo bat iruditzen. Hitanoaren desprestigioak bizirik jarraitzen du adineko emakume zenbaiten buruetan. Informatzaileek behin baino gehiagotan jaso dute erantzun hau, tonu gaitzesgarrian: “Hika? Ezta pentsau be! Gurian ez da sekula egin!”.

Horrez gainera, hizkuntza-kontzientzia falta ere nabarmentzekoa da, kasu batzuetan: zuka ala hika ari diren ez konturatzea, alegia. Askotan ez dira kontziente norekin eta noiz egiten duten, modu automatikoan egiten dutelako. Erregistro-aldaketa oharkabean gertatzen da, eta batzuk *Ingo Xonau!* proiektuaren harira hasi dira euren hizkuntza-ohiturez jabetzen: “*Nik hika egitten dotela Maritxukin? Balaik, bai... Akordau barik neuen!*”.

Emakumeek hika dakiten jakitea ez da erraza, askotan oso eremu intimo eta pribatuan erabiltzen delako. Ez da euskaraz dakien ala ez dakien jakitea. Ez da ardirik baduten galdetzea bezala. Hitanoarena eremu konplexua da, katramilatsua. Posible da lagun bakar batekin egitea, edo ahizpa batekin bai eta bestearekin ez. Eta posible da baserriko etxeakoandreak ez jakitea bere alabak lankide batekin hika egiten duela, berak sekula entzun ez izana.

Kontuan izan behar da, baita ere, informatzaileak asko eta desberdinak izan direla: euren pertzeptzioak ere tartean daudela. Batek baiezkoen artean kontatu duena beste batek seguruenez ez luke kontatuko. “*Badakitt baina ez dot sekula erabiltten*” esaldia hainbat modutara interpreta daiteke, eta arrazoizkoa da zalantzak piztea: *Benetan jakingo ote du ala esaldi solteak bakarrik? Nola jakingo du ez baldin badu sekula erabili?*

“*Gutxi*” erabiltzeak ere bi irakurketa izan ditzake: 1. Pertsona gutxiarekin baina horiekin dena hika. 2. Esaldi solteak bakarrik. Datu-bilketa honetan nokako aditz-formak ezagutzen dituztenak kontatzen saiatu gara, eta aditz solteak soilik dakizkitenak kanpoan geratu dira, salbuespenak ere egon daitezkeen arren. Izan ere, batzuetan datu-biltzaileei informazioa falta izan zaie.

Baserri-auzoetara mugatua. Herriguneko daturik ez da jaso, baserri-auzoetakoak bakarrik. Ia ezinezkoa da Oñatiko etxe guztietara joatea, eta lagin bat hartuta ere (adibidez, 100 emakume), emaitzak zalantzan jartzeko modukoak izango lirateke. Kontuan izan behar delako herriguneko auzoetan eta baserri-auzoetan egoera oso desberdina dela. Gainera, baserri-auzoetan jaiotako asko herriguneari bizi dira.

Baserri guzti-guztietako datuak jasotzea ere oso zaila da. Gaur egun bertan bizi direnenak ez hainbeste, baina kanpoan bizi diren guztiak kontuan izatea bai. Emakume batzuk aspaldi joan ziren auzotik (duela 40-50-60 urte), eta batzuetan beste herri batzuetara. Baserri askotan ez da inor bizi, beste batzuetan jabeak aldatu dira azken urteotan... Informatzaileetako bat zazpi auzotan ibili da, eta ia ezinezkoa da baserri guzti-guztietako berri zuzena izatea. Horrenbestez, emakume nokadunen benetako kopurua handiagoa izango da seguruenez.


Auzo batzuetan badaude beste auzo batzuetatik bertara bizitzera joandakoak. Horiek beren jatorrizko auzoetan kontatu ditugu. Badaude, baita ere, beste herri batzuetatik etorritako emakume nokadunak; horiek gaur egun bizi diren auzoetan kontatu ditugu.

1.2. EMAITZAK


Datu orokorrak

- Auzoetako emakume nokadunak.** Oñatiko 16 baserri-auzoetan jasotako datuak batuta, guztira **370 emakume** dira noka dakitenak.

Nokadunak auzoz auzo




Grafiko honetan auzo bakoitzeko emakume nokadunen kopurua ageri da. Nokadun gehien dituzten auzoak: Araotzen 88 emakume, Olabarrietan 49, Murgixan 41 eta Arantzazun 40. Baliteke herrigunetik urrutien dauden eta industrializazio handirik jasan ez duten auzoetan gorde izana ondoen noka. Gutxien: Lezesarrin 3, Torreauzon 4, Zañartun 5 eta Goribarren 5. Auzo batzuk beste batzuk baino askoz txikiagoak direnez, baserri kopurua ere aintzat hartu behar da kopuru hauek testuinguruan jartzeko (ikus baserri/etxe kopurua **10. orrian**).



2. **Oñatiko emakume nokadunak.** Oñatin guztira zenbat dira noka dakiten emakumeak? Baserri-auzoetan egin dugu datu-bilketa, baina ez kalean edo herriguneko auzoetan.

Erroldako datuen arabera (Oñatiko Udalak 2018ko abenduan emandakoak), guztira 18 urtetik gorako **4.758 emakume** bizi dira gaur egun Oñatin (baserri-auzoetan eta herrigunean). Baserri-auzoetan emakume nokadunak **gutxienez 370** direla kontuan izanda, **4.388 emakume** izango lirateke ez dakitenak. Kontuan izan behar dugu kaleko nokadunak ez daudela kontatuta (proiekturako 9 elkarrizketatu ditugu, baina dezente gehiago izango dira), baina baita ere baserri-auzoetako emakume nokadun batzuk beste herri batzuetara joan zirela bizitzera, gehienak Oñatin bizi badira ere. Horrenbestez, ezin dugu datu errealik eman. Hau hurbilketa bat besterik ez da, gutxieneko kopuru bat.


Noka dakiten Oñatiko emakumeak



Oñatiko emakumeen **gutxienez %7** dira noka dakitenak (kalean ez dugu datu-bilketarik egin: portzentajea handiagoa izan daiteke).

3. **Auzoetan eta kanpoan bizi diren nokadunak.** Baserri-auzoetan jasotako datuetan bertan bizi direnez gainera, gaur egun auzotik kanpora (gehienak Oñatin bertan, batzuk beste herri batzuetan) bizi direnak ere badatoz.

Auzo guztietako nokadunak




OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Oñatiko baserri-auzoetan jaió baina gaur egun kanpoan bizi diren emakume nokadunak **285 dira, %77**. Bertan bizi direnak, berriz, **85: %23**. Aipagarria da auzoetan gaur egun emakume nokadun gutxi bizi dela. Sasoi batean baino jende askoz gutxiago bizi da auzo askotan, bereziki herrigunetik urruti geratzen direnetan: Araotzen, Arantzazun, Urruxolan...

Bertan bizi direnen artean ere badaude jatorriz beste herri batzuetakoak diren emakume nokadunak ere (Angiozar, Bergara, Asteasu, Azkoitia, Leintz-Gatzaga...).


Ikus dezagun auzoz auzo:



Grafiko hau ikusita, nabarmentzen diren datuak: Araozko 88 emakume nokadunetatik 77 bizi dira auzotik kanpo. Arantzazun, 39tik bakarra. Urruxolan, berriz, ez da nokadunik bizi gaur egun (18tik 0). Herrigunetik urruti dauden auzoak dira. Hori bai, Larrañan 24tik 3 dira (kopuru txikia) bertan bizi direnak, herrigunetik gertu dagoen arren.

Lezesarri da auzo bakarra nokadun gehiago dituen bertan bizitzen kanpoan baino, baina kopuruak oso txikiak dira (2 bertan, 1 kanpoan). Berezaon 7 bizi dira bertan eta 9 kanpoan. Zubillagan 11 bertan eta 18 kanpoan.


4. **Erroldatutako nokadunak.** Baserri-auzoetan bizi diren emakume nokadunengan ipiniko dugu arreta. Erroldako zenbat emakumek dakite hika auzo bakoitzean? Oñatiko Udalak emandako datuekin alderatuko ditugu auzoz auzo jasotakoak.



Baserri-auzo populatuena zeintzuk diren ikus daiteke grafiko honetan: Olabarrieta (108), Zubillaga (92) eta Garagaltza (67). Emakume gutxien Urruxolan bizi da (4). Urteen poderioz populazio gehien galdu duten auzoen artean Araotz eta Arantzazu daude, 25na emakumerekin; nokadunen kopurua, aldiz, ez da bera bi auzoetan: Araotzen 11 dira eta Arantzazun bakarra.


Olabarrieta da bertan bizi diren emakume nokadun gehien daukan auzoa (15), ez bakarrik populatuena. Herrigunetik gertu dagoenez, ez du populaziorik galdu (nahiz eta migrazioak egon).

5. **Baserri/etxe kopurua.** Interesgarria da ikustea zenbat baserrian gorde den noka.



Araotzen gorde da ondoen hitanoa: 37 baserrian gorde da. Olabarrieta dator segidan, 23 baserriekin. Ondoren, 15na baserriekin Arantzazu eta Murgixa, eta Zubillaga 14rekin. Baserri gutxitan gorde da, ordea, Lezesarri (3), Torreauzon (3), Goribarren (4) eta Zañartun (4).

Kontuan izan behar da auzo batzuk handiagoak direla eta jende gehiago bizi dela beste batzuetan baino. Ez dela gauza bera 5 etxetan egitea noka 15 baserriko auzo batean edo 50 baserriko auzo batean. Hona hemen gorritz, auzo bakoitzeko baserri/etxe kopurua eta urdinez noka gorde den baserriena, auzoz auzo:



Grafiko honetan argi ikusten da noka Araozko baserrietan gorde dela ondoen (%80). Arantzazun (%53) eta Murgixan (%50) erdia inguru dira gorde duten baserriak. Goribar (%44) eta Berezao (%42) ere erditik gertu samar daude. Zubillaga (%26) eta Olabarrieta (%35) dira baserri/etxe gehien duten bi auzoak, baina ez horregatik noka ondoen gorde dutenak.

Informazio zehatzagoa aurrerago, auzoz auzoko datuetan ([13. orritik aurrera](#)).

6. **Auzo bakoitzeko gazteena.** Auzo bakoitzeko emakume nokadunetatik gazteena zein den ere galdetu dute informatzaileek, datu-bilketa egiterakoan.

AUZOA	Auzoan bizi den gazteenaren adina	OHARRAK
Larraña	66 urte	<i>Badago auzoan noka dakien 39 urteko emakume bat, baina kaletarra da jatorriz</i>
Zubillaga	47 urte	
Uribarri	58 urte	
Lezesarri	66 urte	
Araotz	54 urte	
Berezaio	26 urte	<i>Badaki, baina ez du erabiltzen; erabiltzaile gazteenak 59 urte dauzka</i>
Murgixa	26 urte	<i>Badaki, baina ez du erabiltzen; erabiltzaile gazteenak 46 urte dauzka</i>
Olabarrieta	57 urte	
Torreauzo	52 urte	<i>Jatorriz beste herri batean jaioa da</i>
Zañartu	59 urte	<i>Jatorriz beste herri batean jaioa da</i>
Urruxola	64 urte	<i>Gaur egun ez da nokadunik bizi auzoan</i>
Garagaltza	60 urte	
Madalena	53 urte	
Garibai	47 urte	<i>Jatorriz beste herri batean jaioa da</i>
Goribar	72 urte	
Arantzazu	82 urte	
BATEZ BESTEKOA	55 urte	

Auzoetako emakume nokadun gazteenen **batez bestekoa 55 urtekoa** da. Bi gazteenek 26 urte dituzte: zuzenean jaso dute noka etxean, baina momentuz ez dute erabiltzen, norekin egin ez daukatelako (erabiltzaile potentzialak dira, beraz); auzo guztietan erabiltzaile gazteenaren adina kontuan hartuz gero, batez bestekoa 55 urtetik 58 urtera igoko litzateke.

Jasotako datuen arabera, Urruxolan gaur egun ez da nokadunik bizi; horregatik, auzotik kanpora bizi den urruxolar gazteenaren adina ipini dugu taulan.


Beste herri batzuetakoak ez bezala, oñatiarrak nor bere auzoan kontatzea erabaki genuenez, Larrañan bizi den 39 urteko emakumea kaletarren artean kontatu dugu (Aintzane Agirre 54 elkarrizketatuetako bat da, eta hark emandako datuak ikerketa honen bigarren zatian datoz).

Informazio zehatzagoa segidan, auzoz auzoko datuetan.

Auzoz auzoko datuak


- 1. ARAOTZ.** Araotz da hitanoa ondoen gorde duen auzoetako bat: herrigunetik aparte dago, eta sasoi batean araoztarrak nahiko isolatuta bizi ziren. Baserri-giroko auzoa izan da, erdararen eragin txikia izan duena. Araozko euskarak ezaugarri propioak ditu, oñatieratik ezberdintzen direnak; hitanoko aditzak ere ez dira berdin-berdinak Araotzen eta beste baserri-auzo batzuetan. Araotzen hika egiten zuten denek sasoi batean; orokortutako ohitura zen.

Gure datu-bilketaren arabera, guztira Araozko **88 emakumek** dakite noka gaur egun. Hitzun kopuru handiena duen auzoa da (gizakumeak kontatuz gero, kopurua askoz handiagoa izango litzateke). Hitzun horietako %88 auzotik kanpo bizi da (77 emakume) eta %12 auzoan bertan (11 emakume).




Araozko nokadunen adina ere esanguratsua da (adin-tartearen araberako sailkapena Araotzen bakarrik egin dugu):

Noka dakiten emakume araoztarrak



Auzoko emakume nokadunak



Araozko emakume nokadunak **50 urtetik gorakoak** dira. 80 urtetik gorakoak 34 dira, 65-80 urte bitartekoak, berriz, 33. Horiek dira multzo handienak. 50-65 urte bitarteko 21 emakumek dakite noka. Zenbat eta gazteagoak izan, nokadun gutxiago, beraz.

Azpimarratzekoa da datu-bilketa honetan ez dela ageri 50 urtetik beherako nokadunik. Transmisioan etena egon dela esan nahiko luke horrek, batetik; aurrerago ikusiko dugu seme-alabei hika egin dieten araoztarren kopurua zenbatekoa den (43. orrian). Bestetik, auzotik kanpora bizi diren gehienak Oñatiko herrigunean bizi direla: seme-alabak kaletarrak dira eta ez araoztarrak. Araoztarren kopurua izugarri jaitsi da azken hamarkadetan.

Datu-biltzaileak ez du kontatu noka jakin bai baina erabiltzen ez duen 50 urtetik beherakorik (jaso dutenak, baina ez dutenak erabiltzeko ohiturarik), baina baliteke bakarren bat egotea herrigunean bizi diren araoztarren ondorengoen artean.

Araotzen bizi direnen artean, **gazteenak 54 urte** ditu. Etxean jaso du noka: aitak egiten dio, baina amak ez. Alaba bat dauka, baina hari ez dio hika egiten. Etxetik kanpora erabiltzen du hitanoa, lagunekin.


Araotzen **37 baserri/etxetan** gorde da noka: auzoko baserrietatik **%80**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (65. orrian).

Oharra: Datu-bilketa egin zenean 78 ziren auzotik kanpora bizi zirenak eta guztira 89 nokadunak, Joxepa Zumalde ere kontatu genuelako (2019ko urrian hila, 100 urterekin).

- 2. ARANTZAZU.** Araotz bezalaxe, Arantzazu ere herrigunetik urruti dago. Hori bai, beste ezaugarri batzuk ditu, Arantzazuko santutegia bertan dagoelako. Arantzazu Mendiko auzotarrak ez dira hain isolatuta egon (baserri-giroko auzoa izaten jarraitu duen arren eta baserri askotan araoztarrekin harreman estua izan duten arren). Auzoan hika egiteko ohitura ez da egon Araotzen bezain sustraitua.

Gure datu-bilketaren arabera, **40** dira noka dakiten Arantzazuko emakumeak. Emakume nokadun kopuru handien artean laugarren auzoa da. Hori bai, bakarra bizi

da auzoan gaur egun. Auzoa husten joan da: emakume nokadunen %98 kanpora joan dira bizitzera (gehienak herrigunera).




Auzoan bizi den emakume nokadun gazteenak (bakarra da) 82 urte ditu; datu-biltzailearen ama da. Ahizpa batekin hika egiten du, baina bestearekin ez. Semeei hika egiten die, baina alabei ez.

Arantzazuko **15 baserri/etxetan** gorde da noka: auzoko baserrietatik **%53**. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([66. orrian](#)).

3. BEREZAO. Herrigunetik gertu dagoen auzoa da Berezaio, industrializazio-prozesua jasan duena (hainbat lantegi eta tailer daude). Baserri-giroa txikiagoa da aldamenean duen Murgixa auzoan baino eta hitanoa erabiltzeko ohitura ere txikiagoa izan da. Hori bai, Murgiko eta Berezaoko haurrak Berezaoko auzo-eskolara joaten ziren sasoi batean, eta ikaskideen artean hika egiteko ohitura zuten (klaseak gaztelaniaz ziren).

Gure datu-bilketaren emaitzen arabera, **16 emakume** dira Berezaion noka egiten dutenak. Horietako %44 bertan bizi dira (7 emakume) eta gainerako 9ak auzotik kanpo.




Berezaon bizi direnen artean, noka dakien gazteenak **26 urte** dauzka. Zuzenean jaso du hika etxean (aitak egiten dio, amak ez), baina bera ez da erabiltzaile bihurtu momentuz (ez dauka zeinekin egin). Auzoan bizi den erabiltzaile gazteenak, berriz, **59 urte** dauzka.

Berezaoko **9** baserri/etxetan gorde da noka: auzoko baserrien %42. Baserrien zerrenda eranskinean dator (67. orrian).

- 4. GARAGALTZA.** Herrigunetik gertu dago eta auzoak industrializazio-prozesua jasan duen arren, baserri-giroa ere nahiko ondo mantendu da. Hori bai, badirudi auzo-giroan ez dela egon hika egiteko ohitura handirik emakumeen artean.

Gure datu-bilketaren arabera, **8** dira emakume nokadun garagaltzarrak, eta horietako 5 emakume auzoan bizi dira: %62. Gainerako 3ak (%38) auzotik kanpo.




Auzoan bizi den gazteenak **60 urte** ditu. Jakin badaki, baina ez dauka ohitura handirik hika egiteko eta ez du transmititu.

Garagaltzako **6** baserri/etxetan gorde da noka: %15. Baserrien zerrenda eranskinean dator (67. orrian).

- 5. GARIBAI.** Herrigunetik gertu dagoen auzoa, industrializazio-prozesua jasan duena. Emakumeen artean hika egiteko ohitura nahiko galduta dago orokorrean. Hori bai, mendi aldeko baserrietan (Aurrekomendin hiru auzotako baserriak daude: Garibai, Larraña eta Zubillaga) noka egiteko usadioa nahiko zabaldua egon da.

Gure datu-bilketaren arabera, **9** dira emakume nokadunak Garibai auzoan, eta gehienak auzotik kanpora bizi dira: %78 (7 emakume).




Auzoan bizi diren bi nokadunetatik gazteenak **47 urte** dauzka eta jatorriz Belauntzakoa da (baserriko seme batekin ezkondua). Etxean jaso zuen hitanoa, baina ez zioten dena hika egiten eta oso gutxi erabiltzen du, gehien bere bi anaiekin. Seme bat eta alaba bat dauzkate, eta haiei esaldi solteak esaten dizkie hika, noizean behin.

Garibaiko **5** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%25**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (**67. orrian**). Baserri horietako bi Aurrekomendin daude (Koixkar biak).

Diagnostiko-ikerketa honen egilea ere auzo horretako alaba da. Noka ikasten ari da. Ez dago zenbatuta.

6. GORIBAR. Herrigunetik gertu dagoen auzoa, industrializazio-prozesua jasan duena. Hala ere, baserri-giroa nahiko ondo mantendu du. Auzo txikia da, baserri gutxikoa, eta, herrigunetik gertu dauden beste auzo batzuekin alderatuta, noka nahiko ondo gorde da.

Gure datuen arabera **5** dira nokadunak. Horietako 3 bizi dira gaur egun auzoan: **%60**. Auzotik kanpo 2, **%40**.




Goribarren bizi diren 3 emakume nokadunetatik gazteenak **74 urte** ditu, eta jatorriz Leintz-Gatzagakoa da (gaztetan etorri zen Oñatira bizitzera). Berak aita-amengandik zuzenean jaso zuen noka. Seme-alabei batzuetan hika egiten die, baina ez beti

(gaztetxoak zirenean orain baino gehiago); semeari alabei baino errazago egiten dio hika. Bi alabak ez ditugu nokadunen artean zenbatu, baina belarria eginda izango dute.

Goribar auzoko **4** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%44**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (**68. orrian**).

- 7. LARRAÑA.** Herrigunetik gertu dagoen auzoa, azken urteetan asko urbanizatu dena. Baserri-giroa nahiko ondo mantendu du, eta auzo-giroan hika hitz egiteko ohitura egon da duela oso gutxirarte. Besteak beste, mendi aldeko baserrietan (Aurrekomendin hiru auzotako baserriak daude: Garibai, Larraña eta Zubillaga).

Larrañan **27 emakume** dira noka dakitenak, eta gehienak auzotik kanpo bizi dira: **%89** (24 emakume). Bertan bizi direnak 3 dira.



Larrañan bizi den nokadun gazteenak **66 urte** ditu, eta hitanoa ez du etxean jaso, auzo-giroan baizik. Ez die ondorengoei transmititu.


12. orrian aipatu dugun bezala, auzoan badago noka dakien gazteago bat ere, 39 urtekoa. Urte gutxi daramatza auzoan. Herrigunean jaioa denez, ez dugu auzotar moduan kontatu, kalekoen artean baizik. Etxean jaso du noka, zeharka, eta lankideekin aktibatu du. Seme-alabei hika egin nahiko lieke, eta hasita dago bide horretan.

Nokadunen artean Azkoitiko emakume bat dago.

Larraña auzoko **9** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%21**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (**68. orrian**). Zerrendako baserrietako bat Aurrekomendikoa da: Antzuelas Beitti.

- 8. LEZESARRI.** Herrigunetik gertu dagoen auzo txikia, nahiko industrializatua. Auzoan ez da hika hitz egiteko ohitura handirik egon azkenaldian.

Lezesarrin **3 emakume** dira noka dakitenak eta horietako 2 bertan bizi dira.




Auzoko emakume nokadun gazteenak **66 urte** dauzka. Herriguneko baserri batekoa jatorriz, 16 urtetatik bizi da Lezesarrin. Gurasoek normalean hika egin izan diote (baina ez den-dena: zuka ere bai, nahastuta). 42 urte igaro ditu lantegi batean lanean, eta bertan hika egiten zuen lankide batzuekin. Anaiarekin ere hika egiten zuen. Bi alaba dauzka eta haiei ez die hika egiten.

Auzoan bada beste nokadun bat, baina jatorriz beste auzo batekoa da (Zañartu) eta bere jatorrizko auzoan zenbatu dugu.

Lezesarrin **3** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%12**. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([68. orrian](#)).

- 9. MADALENA.** Santxolopeztegi auzoa, Madalena bezala ezagunagoa. Herrigunetik nahiko gertu dago, herrigunera doan errepideetako baten ondoan, eta industrializazio-prozesua jasan du auzo honek ere.

Gure datu-bilketaren arabera, **13** dira emakume nokadunak, eta horietako %31 soilik bizi dira bertan (4). Gainerako 9ak auzotik kanpora bizi dira.




Emakume nokadun gazteenaren adina **53 urte** da. Etxean jaso zuen hitanoa, baina seme-alabei ez die hika egiten.

Santxolopeztegi auzoko **6** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%37**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (**68. orrian**).

10. MURGIXA. Herrigunetik nahiko gertu egon arren, baserri-giroa ondo mantendu duen auzoa da. Auzoan hika hitz egiteko ohitura egon da; haurrak Berezaoko eskolara joaten ziren sasoi batean, eta han ere hika jarduten zuten euren artean.

Murgixan **41 emakume** dira noka dakitenak. Horietako %68 kanpoan bizi dira (28 emakume) eta %32 auzoan bertan (13 emakume).




Murgixan bizi den gazteenak **26 urte** dauzka. Etxean jaso du hika: amak egiten dio. Jakin badaki, baina ez da erabiltzailea, momentuz. Biak elkarrizketatu ditugu proiektu honetarako.

Auzoan bizi den erabiltzaile gazteenak **46 urte** dauzka. Erabiltzaileak guztira 39 dira; izan ere, 2 gazteenek ez dute erabiltzen, ez dutelako zeinekin egin.

Murgiko **15** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%50**. Baserrien zerrenda eranskinean dator (**69. orrian**).

11. OLABARRIETA. Herrigunetik nahiko gertu dagoen auzoa, herriko bi sarreretako batean, eta biztanle gehien dituen baserri-auzoa, Zubillagaren aurretik. Nortasuna eta baserri-giroa nahiko ondo mantendu dituen auzoa da, hala ere. Auzoan bazegoen emakumeen artean noka hitz egiteko ohitura, baina galtzen joan zen eta gaur egun auzo-giroan ez dute noka jarduten.

Olabarrieta auzoko **49 emakume** dira noka dakitenak. Horietako 15 bakarrik bizi dira auzoan bertan (%31). Gainerako 34ak auzotik kanpo (%69) daude gaur egun.




Olabarrietan bizi den gazteenak **57 urte** dauzka. Jakin badaki, baina, dioenez, oso gutxi erabiltzen du hitanoa eta ez du transmititu.

Bada 64 urteko emakume bat “nokako formaren batzuk bai, baina osorik egiteko moduan ez” dakiela dioena, baina anai-arreben artean lehen hika egiten zutela ere esan duena. Datu-biltzaileak ez du baiezkoen artean kontaktu.

Olabarrietako **23** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%35**. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([69. orrian](#)).

12. TORREAUZO. Herrigunetik nahiko gertu dagoen auzoa, industrializazio-prozesua jasan duena. Auzoan ez da emakumeen artean hika egiteko ohiturarik aspaldian.

Torreauzon **4 emakume** dira noka dakitenak, eta horietako 3 –tartean datu-biltzailea- auzoan bertan bizi dira.




Auzoan bizi den nokadun emakume gazteenak **52 urte** dauzka, eta Bergarakoa da jatorriz (Oñatira ezkondua). Etxean jaso zuen hika (zuzenean baino gehiago zeharka, amari eta izebari entzunda). Eskola garaian hika egiten zuen bere adineko neskatilekin, eta noizean behin haiekin egiten jarraitzen du. Oñatin ez du erabili izan, auzoan ohiturarik ez dagoelako, eta alabari zuka egiten dio.

Auzoko **3** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%20**. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([70. orrian](#)).

13. URIBARRI. Arantzazutik eta Araoztik gertu dagoen auzoa, eta baserri-giroa ondo mantendu duena. Auzoan noka hitz egiteko ohitura egon zen sasoi batean, baina apurka-apurka erabilera gizakumeen eremura mugatzen joan da.

Uribarrin **15 emakume** dira noka dakitenak. Horietako 11 auzotik kanpora bizi dira (besteak beste, informatzailea bera).



Auzoan bizi den gazteenak 58 urte ditu, eta zeharka jaso du hitanoa, etxean: amak eta osabak beren artean egiten zuten, baina berak ez du erabiltzeko ohiturarik izan, eta ez die semeei transmititu (semeek etxetik kanpora ikasi dute hika egiten, eta emakumezkoen aditz-formarik ez dakite).


Auzotik kanpora bizi direnen artean gazteenak 33 urte ditu, eta proiekturako elkarrizketatu dugu. Badira belarria eginda duten beste gazte batzuk ere auzoan, zenbatu ez ditugunak.

Nokadunen artean Ordiziako emakume bat dago. Beste bi emakume ere bizi dira auzoan hika egiten dutenak, Zubillagakoa eta araoztarra, baina horiek euren auzoetan kontatu ditugu.

Uribarrin **10** baserri/etxetan gorde da noka: baserrien **%31**. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([70. orrian](#)).

14. URRUXOLA. Herrigunetik urruti dagoen auzoa, baserri-giroa ondo mantendu duena, baina azken urteetan husten joan dena. Sasoi batean auzoan hika hitz egiteko ohitura egongo zen seguruenek; gaur egun jakin bai, baina gehien-gehienek ez dute erabiltzen.

Urruxolan **18 emakume** dira noka dakitenak eta denak auzotik kanpora bizi dira.




18 emakume horietatik gazteenak **64 urte** ditu, ez dauka hika egiteko ohiturarik eta ez du hitanoa transmititu.

Urruxolan **6** baserri/etxetan gorde da noka, baserrien %35ean. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([70. orrian](#)).

15. ZAÑARTU. Ez dago herrigunetik hain gertu, eta baserri-giroa ondo mantendu du. Hala ere, Torreazon gertatzen den moduan, ez dirudi auzoan emakumeen artean hika jarduteko ohitura handirik dagoenik.

Zañartun **5 emakume** dira noka dakitenak, eta bakarra bizi da auzoan.




Auzoan bizi den emakume horrek (bakarra da) **59 urte** ditu. Angiozarkoa (Bergara) da jaiotzez. Gurasoek ez zioten hika egin, baina auzoan ohitura handia zegoenez, senideekin zein kuadrilako lagunekin hika egin izan du beti. Semeari eta alabari normalean ez die hika egiten, noizean behin bakarrik. *“Baina bixak dakixe. Alabiak be jakin badaki, guri entzunda”*.

Zañartun **4** baserritan gorde da noka (**17%**). Baserrien zerrenda eranskinean dator (**71. orria**).

16. ZUBILLAGA. Herrigunetik kanpoaldera geratzen den auzoa, herriko bi sarreretako batean. Urbanizazio eta industrializazio prozesu handia jasan du, eta erdararen eragin nabarmena. Auzoan hika hitz egiteko ohitura zegoen sasoi batean, baita emakumeen artean ere, baina galduz joan zen. 70eko hamarkadan euskarak (eta euskararekin batera hitanoak ere bai) susperraldi bat izan zuen auzoan; ordura arte erdarara jotzeko joera nagusitua zen. Larrañan eta Garibain bezalaxe, Zubillagan ere badaude Aurrekomendin kokatutako baserriak, auzunetik aparte samar daudenak, eta ingurune hartan noka nahiko ondo gorde da.

Zubillagan **29 emakume** dira noka dakitenak. %62 auzotik kanpora bizi dira gaur egun (18 emakume) eta gainerako 11 emakumeak auzoan.



Zubillagan noka dakien emakume gazteenak **47 urte** dauzka. Etxean jaso du hitanoa, zeharka (amak izebarekin egiten zuen), baina ez du etxean erabili izan. Lantegian aktibatu zuen: hantxe hasi zen erabiltzen, eta lankideekin bakarrik erabiltzen du eta ez asko.

14 baserri eta etxetan gorde da noka Zubillagan: baserri-etxeen **%26**. Zerrendako bi baserri Aurrekomendikoak dira: Askazubi eta Alkorta. Baserrien zerrenda eranskinean dator ([71. orria](#)).

Oharra: Datu-bilketa egin ostean, Zubillagako 2 nokadun hil dira (Eduarda Villar, 100 urterekin, eta Juli Mendizabal, 96 urtekoa); kasu honetan, ez ditugu zerrendatik kendu. Izan ere, ikerketako emaitza denak prest zeudenean izan dugu heriotza horien berri.

1.3. Informatzaileen esperientzia eta iritziak

Atal honetan informatzaileen perfilak gehiago zehaztu ditugu, eta haien pertzeptzioak eta datu-bilketan izandako esperientziak ere bildu ditugu.

Koldo Zumalde (Araozko datu-biltzailea):

- Araozko Aizkorbe Azpikoa baserrikoa. Koldok etxean jaso zuen hitanoa, gurasoengandik zuzenean, eta senideekin hika egiten du, baita Araozko lagunekin ere (bere adin inguruko gizakume zein emakumeekin). Seme-alabei ez die hika egin izan, auzoko bere adin inguruko gurasoek egin duten antzera (ez mutilei eta ezta neskei ere; egitekotan, mutilei errazago). Herrigunean bizi da.
- Koldo proiekturako elkarrizketatu genuen (ikus <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/koldo-zumalde-barrena/>) eta bere bi arreba ere bai: Agurtzane (ikus <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/agurtzane-zumalde-barrena/>) eta Jesusa (ikus <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/jesusa-zumalde-barrena/>). Jesusak bere bi semeei hika egiten die.
- *“Auzotik kanpora bizi diran 77 emakumiak euskaldunak ziran Araoztik alde egin eueinian. Eta hika egingo ebeina be begixen bistakua da, Araotzen danak egitten eueilako. Ezin da jakin gaur zein dan zenbaitten euskara maillia”* (adibidez, gaztetatik kanpoan bizi den mojarrena).
- *“Auzuan bizi diran 11 emakumiak: aldiak alde, hika moldaitten dira”* (jakin bakarrik ez, erabili ere egiten dute).
- Araozko 88 emakume nokadunena ez zaio kopuru handia iruditzen, Oñatiko biztanle kopurua kontuan izanda. Herrigunean hitanoaren presentzia oso txikia dela dio, galduta geratzen dela. *“Araoz hikaren gordelekua dala esaten da, baina hika ebalten dogunak lau katu gara”*.

Elias Zumalde (Arantzazuko datu-biltzailea):

- Arantzazuko Gesaltza baserrikoa. Eliasek zuzenean jaso du hitanoa etxean, guraso biek egin diote: *“Amak mutiloi hika, neskei zuka. Nik anaiakin, koiñatuekin, lagun gizonetzuekin hika. Arrebekin eta lagun emakumezuekin zuka (emakume konkretu batzuekin hika). Etxian, berriz, andriakin eta alabiakin zuka, semiakin hika. Andriak hika baxakin, baina seme-alabekin eta bere etxekuekin zuka egitten xon. Nik gizonetzko gehixenekin eta emakume gutxi batzuekin (neri hika egitten xostanain emakumiekin) egitten xonat hika”*. Herrigunean bizi da.
- Eliasen arreba, Belen Zumalde, proiekturako elkarrizketatu genuen (ikus <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/belen-zumalde-barrena/>). Amak ez zion hika egiten eta berak ere ez dio alabari egin; semeari, berriz, bai.
- Arantzazun, emakumeen artean hika egiteko ohitura nahiko galduta ikusten du Eliasek: *“Arantzazuko adin batetik gorako emakume gehixenak dakixe, baina erabili oso gutxik. Askok araoztarrekin bakarrik ebalten daue hika (kalekuekin eta beste auzo batzuetakuekin ez)”*.

Nerea Agirre (Murgiko eta Berezaoko datu-biltzailea):

- Murgiko Iziar Goikoa baserrikoa. Nereak etxean jaso du hitanoa: amak bi alabei hika egin die. Etxetik kanpora ez du izan noka erabiltzeko aukerarik: ez zeukan norekin egin

(orain *Ingo Xonau!* lantaldeko kideetako bat da). Nereak amarekin erabili izan du gehien (ohituraren kontra, seme-alabek gurasoei ez baitzieten egiten). Ahizpari eta alabari ere hika egiten die batzuetan; *“gero eta gehixau”*. Olabarrieta auzoan bizi da.

- Nerea proiekturako elkarrizketatu dugu: <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/nerea-agirre-kortabarria/>
- Murgiko eta Berezaoko datu-bilketarekin Nerea hasi zen, eta ondoren Marije Ugartek jarraitu zuen, auzo bietako emakume nokadunekin zuzeneko hartu-emana daukalako.

Marije Ugarte (Murgiko eta Berezaoko datu-biltzailea):

- Murgiko Azkarreta baserrikoa. Marijek etxean jaso zuen noka, zuzenean. Senide gehien artean hika egiten dute, baita ahizpa mojarrekin ere (*“lehenago zunan gure ahizpia monja baino!”*). Marijek alabari eta semeari hika egiten die; hizkuntza-muda egin zuen, modu kontzientean, hika egiten hasteko. Laudion bizi da.
- *“Fenomeno arraruak”* gertatzen dira hitanoarekin, Marijeren ustez: familian anai gazteenari zuka egiten diote denek, baita berak ere, baina horretaz ohartu gabe zegoen orain arte. Senide guztiekin hika jarduten zuela pentsatzen zuen.
- Marije proiekturako elkarrizketatu dugu (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/marije-ugarte-garitaonandia/>, eta baita bere ahizpa Beatriz (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/beatriz-ugarte-garitaonandia/>) eta Ane alaba ere (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/ane-ugarte-garitaonandia/>). Beatrizek eta Marijek hika egiten dute elkarrekin. Beatrizek zuka egiten dio bere alabari; Ane ilobari, berriz, hika. Anek ez dauka norekin egin hika, amak eta izebak ez diotelako uzten haiei egiten (amari eskatu izan dio).
- Murgiko lagun artean hika egin dute umetatik. Berezaoko eskolara joaten ziren, eta han ere hika aritzen ziren (eskolatik irtendakoan).
- *“Murgixan ohitturia egon don hika egitteko, Berezaon ez hainbeste”*, baina hala ere Berezaoko kopurua (16 emakume) nahiko txukuna iruditu zaio Marijeri: pentsatzen zuena baino emakume gehiago agertu dira, azkenean, Berezaon.
- Berezaon Murgixa baino kaletarragoa izan dela dio. Baserri batzuetan *“urbanitaguak”* ziren, *“kale-girotik gertuago euzenak. Kaletik gero eta hurrago, erderarako joera haundixagua”*. Marijek 15 bat urte zituela, Murgiko eta Berezaoko emakume askok erdarara jotzen zuten: *“Fintasunaren eta dotoretasunaren virusa sartu xatanan”*. Bere moduko *“lotsa gutxiko banaka batzuk”* kenduta, beste guztiek jotzen ei zuten erdarara. *“Gaur egun be baserri batzutan senide artian erderaz gehixau egitten xonai euskeraz baino”*.
- Ohituraz ume txikiei zuka egiten zaie koskortu arte (6-8 urte) eta gero hika; hizkuntza-ohitura aldatzea zaila gerta daiteke, Marijeren ustez. Berari, seme-alabekin hizkuntza-aldaketa egin zuzenean (beranduago eta modu kontzientean: nerabeak ziren ordurako), zu-tik hi-ra, kosta egin zitzaion.
- Berezaon eta Murgixan badira beste neska gazte batzuk belarria eginda dutenak, etxean entzun dutelako, nahiz eta zuzenean jaso ez. *“Erabiltzaile potentzialak”* izan daitezke.
- Marijeri Kontxi Umerezek (Berezaon) eta Karmen Inzak (Murgixa) lagundu diote datu-bilketa egiten. Horrenbestez, bi auzo hauetan beste auzo batzuetan baino jende gehiago ibili da informazioa batzen, eta baliteke datuak ere zehatzagoak izatea.

Pili Irazabal (Larrañako datu-biltzailea):

- Larrañako Irazabal Haundi baserrikoa. Etxean jaso zuen hitanoa, zuzenean, eta anai-arreba guztiekin egiten du hika. Seme-alabarik ez dauka, eta iloba batzuekin ere hika egiten du (ez guzti-guztiekin; konfiantza edo harreman gehien daukanekin). Herrigunean bizi da.
- Proiekturako elkarrizketatua, Beatriz Irizarrekin batera (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/pili-irazabal-gorosabel/>).
- *“Proiektuaren harrerari dagokionez, nik jaso doten inpresia oso baikorra don. Jente asko jakiñian xaunan ni gerturatu aurretik pe, eta, dakigunoi (eta iñoiz erabilli eztaueni be) ze pentsau emun xoskun. Biharrezkua zala pentsaitten xonat, eta iritzi bera sumatu xonat kalia be”.*
- Pilik pentsatzen zuena baino emakume gutxiago dira nokadunak Larrañan. Pentsatzen zuen bere etxeko egoera bera izango zutela beste baserrietan ere (gurasoek hika seme-alabei eta senideen artean hika), eta ezetz konturatu da.
- *“Auzoko 2-3 familixatan”* gurasoek ez zieten seme-alabei etxean hika egiten uzten. *“Gainera esan: ‘Debekatuta. Etxe honetan, mesedez, dana zuka’. Ez dala izan transmisio falta bat gura barik egin dana. Batzutan nahitta egin da, pentsaitten ez zala egokixa. Horrek pentsau xone: ez, zuka askoz goxuagua da, askoz errespetuzkuagua da, hau besteau ezta errespetokua be ezta”.* Piliren adineko batzuek (mutil zein neska) auzoan ikasi/aktibatu dute hika, *“lagunekin auzo-giruan”.*
- Auzoan kontzientzia pizteko ere balio izan du proiektuak, Piliren ustez. *“Jente asko oin hasi da: ‘Orduan jarraitu egin bihako geke?’. Elkarrizketa hori euki dogu askotan. ‘Orduan hasi egin bihako dot igual Pili, eurakin be... ez? Neu behintzat eureana hika zuzenketan’. Hori esan xostan ni baino nausituagua dan eta ya ezkondata dakonak, e, seme-alabak pe: ‘Hasi egin bihako geke igual etxian behintzat gure artian eta eurari be guk hika egitten, e’.”*

Ander Lizarralde (Olabarrietako datu-biltzailea):

- Kaletarra da jaiotzez, baina ama Olabarrietakoa du Anderrek, eta harreman estua dauka auzo horrekin. Toka jarduteko ohitura du, baina noka ez. Filologoa da ikasketaz, eta nokaren galerarekin arduratuta, herritar taldetxo bat bildu zuen; huraxe izan zen *Ingo Xonau!* proiektuaren hazia. Herrigunean bizi da.
- Baserriz baserri galdezka ibili denean, konturatu da Olabarrietako baserri batzuetan hika egitea ez dutela begi onez ikusten: *“Edukaziño faltia”* dela esan zion emakume batek, berak ez duela egiten eta nahi ere ez. *“Takarra”, “pittin bat edukaziño txarrekua”* eta *“hika? pentsau be ezta”* bezalako erantzunak jaso ditu.
- *“Hittato”* espresioa jaso du baserri batean, *“hitano”* esateko: *“Amiñoko Eulalik (75 urte) anaiak eta berak elkarrekin “hittato” egitten dauela esan dosku”.* Araotzen ere jaso dugu espresio hori.
- Olabarrietako hiru baserrian senideen artean hika dabiltzanean, neskei mutilei bezala egiten diete: toka. *“Gaztien artian asko zabaldu dan joeria hemen be presente dau”.*

Marilu Orueta (Olabarrietako informatzailea):

- Olabarrietako Funduarte baserrikoa, Mariluk noka egiten du bere bi ahizpekin eta hainbat lagunekin. Aita-amek ez zioten hika egin (semeei hika egin zieten baina alabei zuka).
- Proiekturako elkarrizketatu dugu (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/marilu-orueta-biain/>).
- Ander Lizarralde Olabarrietan egindako datu-bilketa osatzen lagundu digu Marilu Oruetak, auzoko emakume nokadunak bertatik bertara ezagutzen dituelako.

Beatriz Irizar (Torreauso-Zañartu-Urruxola-Garagaltza-Madalena-Garibai eta Goribar auzoetako datu-biltzailea):

- Torreausoko Elazarra baserrikoa. Hitanoa ez du zuzenean etxean jaso: gurasoek ez zioten hika egin. Zeharka jaso du, familian entzunda. Gaztetan aktibatu zuen hitanoa, eta lagun batzuekin egiten du noka. Anaiei eta ilobei zuka egin izan die. Torreauson bizi da.
- Proiekturako elkarrizketatua, Pili Irazabalekin batera (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/beatriz-irizar-elortza/>)
- Beatrizek 7 auzotan batu ditu datuak. Hasieran bertan bizi direnak soilik kontatu zituen, eta gero kanpora joandakoen bila ibili da. Auzo horietan noka nahiko galduta dago orokorrean, eta ez da lagintza erraza izan nokadunak identifikatzea. Urruxola auzoko datuak lortzea, adibidez, nekeza izan dela dio Beatrizek, auzoan inor gutxi bizi baita.
- Jakintza eta erabilera ez datoz bat kasu askotan: *“Urruxolan baietz esandako danak eztauela sekula barbarik egin esan xostanai”*.
- Etxe batzuetan hika egitea ez dute begi onez ikusten. *“Guk hika ez, e!”* bezalako erantzunak jaso ditu baserri batzuetan.
- Pertzeptzioetan oinarritutako datu-bilketa den neurrian, interpretazioa batzuetan konplexua da: *“Zela interpretatu `guk badakigu baina ez dogu sekula egin’?”*. Gertatu zaio familia berean, ahizpa batek hika badakitela esatea eta beste batek ezetz, ez dakitela.
- Beste baserri batean, *“Zuen etxian hika egiten dozue?”* galdetuta, ezetz esan zioten, baina gero jakin zuen, beste iturri batetik, bertako alaba batek lankideekin egiten duela. Etxean ez dute sekula egin izan.

Maidir Irizar (Uribarriko eta Lezesarriko datu-biltzailea):

- Uribarriko Gorordo baserrikoa. Etxean jaso du hitanoa: aitak egiten dio (Antzuolakoa da), amak ez. Senide artean ez dute hika egiten eta ezta auzoan ere; Maidarren anaiak lagunekin aktibatu zuen toka, baina nesken artean ez da gauza bera gertatu. Maidir bere kabuz hasi zen hika erabiltzen (toka eta noka), lankideekin. Gasteizen bizi da aspalditik.
- *Ingo Xonau!* lantaldekoa da, eta proiekturako elkarrizketatu dugu (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/maider-irizar-kortabarria/>).
- Baserri batzuetan hika aritzea ez dute begi onez ikusten: baserri bateko emakume nokadun batek *“ez xon entzuterik be gura zuek egitten zabitzeiñ lanen buruz ezer”*.

Beste bati hika *“bastua”* iruditzen zaio eta halako erantzunik ere jaso du: *“Hika? Ezta okurridu be!”*. Beste batek ahizpa batekin egiten du, baina ahizpa gazteagoarekin ez: *“Batzuetan, pentsaitten xon errespetu faltia edo itsusixa dala hika egittia”*.

- Hiztunak askotan ez dira konturatzen hika ala zuka dabilzan, automatikoki egiten dutelako, pentsatu gabe. Lezesarriko 66 urteko emakume batek esana: *“Esan nostainian hika itten doten nik ezetz esan neben, baina gero konturatu nintzan baietz, pillatxo batekin egitten dotela”*.

Mariaxun Villar eta Eli Igarzabal (Zubillagako datu-biltzaileak):

- Mariaxun Villar Zubillagako Arretxe Haundi baserrikoa da. Mariaxunek ez zuen hitanoa gurasoengandik jaso. Auzoko lagunekin hasi zen hika erabiltzen, besteak beste Elirekin. Ez du hitanoa transmititu. Alabei ez die noka egiten. Zubillagan bizi da.
- Eli Igarzabal Zubillagako Arotzena baserrikoa da. Gurasoek hika egiten zioten. Senarrarekin ere hika egiten du (ohituraren kontra: senarrari zuka egitea da ohikoena; nobio garaian hika hasi ziren eta hala jarraitu dute). Semearekin eta alabarekin ez. Hernanin bizi da, eta hango hika ere badarabil.
- Mariaxun eta Eli elkarrekin ibili dira datu-bilketa egiten. Proiekturako ere elkarrekin elkarrizketatu ditugu (<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/mariaxun-villar-lizarazu/> eta <https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/eli-igarzabal-erostegi/>).
- Mariaxun Villar: *“Esan biharrian gauz nahiko sorpresa izan dogula, guk uste geben hika eria jende gehixauk ibiltten ebela Zubillagan, baiña ez da hola”*.
- *“Kasu batzutan ikusi dogu lotsa edo antzerako zerbaitt erantzunetan: ‘Ez, ez, gurian ez da iñoiz egin!’, zerbaitt txarra izango bazan moduan”*.
- *“Baitta esan bihar auzuan bizi garenon artian alkarrekin iñoiz ez dogula erabili, danok daku esparru aparta (lagun artian, familixan, ahizpiakin...)”*. Eremu intimoko hizkera da eta askotan ez dakite zeinek dakien eta zeinek ez.
- Eli eta Mariaxun gazteak zirela, euskararen berpizte bat gertatu zen auzoan, agustindarren eraginez, eta lagunaren artean noka egiten hasi ziren. (<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-027/>).

Datu-biltzaileen iritzi eta esperientziak aintzat hartuta, **hausnarketa batzuk**:

- Datu-biltzaile gehienek ez dute hitanoa transmititu (salbuespenak: Marije Ugarte, Pili Irazabal eta Nerea Agirre; Eliasek toka bai, baina noka ez).
- Hitanoaren desprestigioa nabaria da auzo gehienetan (baliteke dakiten batzuek ez dakitela esan izana ere).
- Orokorrean, datu-biltzaileek pentsatzen zutena baino emakume nokadun gutxiago dago.
- Eremu intimoko hizkera denez, zaila da jakitea zenbatak dakiten.
- Nokadunek batzuetan ez dakite noiz eta noekin egiten duten hika/zuka.
- Baserri-auzoetatik kanpora bizi diren nokadun guztiak identifikatzea ez da erraza. Bertan bizi direnekin ere nahiko lan.

Saiatu gara baserri-auzoetan jasotako datuak konparatzen eta bateratzen, baina baliteke emakume nokadunen bat bi aldiz kontatuta egotea: jaio zen auzoan eta gaur egun bizi den auzoan. Hori bai, orokorrean uste dugu datu-bilketa sakonagoa eta sistematikoagoa eginda, emakume kopurua igo egingo litzatekeela eta ez jaitisi.

2. ELKARRIZKETETAN OINARRITUTAKO IKERKETA

2.1. METODOLOGIA

Auzoz auzo egindako datu-bilketarekin batera, hitanoari buruzko iritzia eta nokako jarduna jasotzeko hainbat elkarrizketa egin genituen. Nokadunei. *Ingo Xonau!* proiektuaren helburua Oñatiko noka jasotzea baita, ondoren biziberritzeko.

Noka dakiten **54 herritar elkarrizketatu genituen**, 2019ko otsailetik maiatzera bitartean. Elkarrizketa gehienak Oñatiko Udal Euskaltegian egin genituen, bertako langileen laguntzari esker. Bideoz egin genituen, eta ondoren grabazioak lantzen eta [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) webgunean ipintzen joan gara: <https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau/>

Zeren arabera aukeratu ditugu? Ahalik eta auzo gehienetako hiztunak elkarrizketatzen saiatu gara. Horretarako, nokadunen zerrenda bat egin genuen lehenengo, auzoka banatuta. Herritar askok hartu zuen parte langintza horretan, eta bereziki *Ingo Xonau!* proiektuaren bultzatzaileek: ez da ahaztu behar herri ekimenetik sortutako proiektua dela, kezka batetik abiatutakoa; taldetxo bat laguntzeko prest egon da hasieratik. Elkarrizketak egiten joan ahala ere kontaktuak lortzen jarraitu genuen, elkarrizketatuen bitartez.

Kasu gehienetan elkarrizketatuek eurek aukeratu zituzten beren elkarrizketa-lagunak, hika jarduteko ezinbestekoa baita eroso jardutea. Taldeka egindako elkarrizketetan taldekide guztiak ez dira beti auzo berekoak. Adibiderako: Arantzazukoa+Garagaltzakoa, Larrañakoa+Torreazukoa, Olabarrietakoak+kaletarra... Elkarrizketak banaka zein taldeka (2-3-4 lagun) egin genituen. Bikoteak edo taldekideak kasu batzuetan senideak ziren, gehienetan lagunak. Gertuko harremana zuten betiere.

Elkarrizketetan, nokako jarduna jasotzeaz gainera, hitanoari buruz ere galdetu genien: nola ikasi zuten; noiz, norekin eta nola erabiltzen duten; hitanoaren arauak (nori bai, nori ez); transmititu duten ala ez; hitanoari buruzko pertzeptzioak... Horiek dira ikerketa honetan erabiliko ditugunak. Transmisioa da interesatzen zaiguna: zer gertatu den gaur egungo egoerara iristeko.

Kasu batzuetan, familia bereko belaunaldi bat baino gehiago elkarrizketatu ditugu:

- Araozko Enkarna Grisaleña eta Mirari Guridi alaba
- Araozko Frantziska Erostarbe, haren alaba Marixol Bolinaga eta Irati Barrena biloba
- Araozko Joxepa Zumalde eta bere alabetako lau
- Murgiko Marije Ugarte eta Ane Ugarte alaba

Aurreikusitakoa baino elkarrizketa gehiago egin genituen. 15 elkarrizketa egin behar ziren eta 25 egin genituen: 16 mahainguru eta bakarkako 9 elkarrizketa, [45 grabazioetan](#) (hitanoari buruzkoak, jardun libreak eta aditzak jasotzeko inkestak).

Esan behar dugu proiektuak harrera oso ona izan duela, eta ia denek eman zutela baiezkora elkarrizketetan parte hartzeko, batzuei kameraren aurrean ipintzeak erreparoa ematen dien arren. **Eskerrik beroenak denei!**






Elkarrizketatuen perfilak

52 emakume eta 2 gizakume elkarrizketatu genituen, guztira 54 hiztun. Elkarrizketatutako gehien-gehienak erabiltzaileak dira: pertsona gutxiagorekin edo gehiagorekin, baina noka erabiltzen dute gaur egun. Badaude 3, gazteenen artean, noka jakin bai edo ikasten dabiltzanak, baina momentuz gutxi erabiltzen dutenak.

Elkarrizketatuen adina



Elkarrizketatuek 19 eta 100 urte bitarte zituzten. 60-70 urte bitartekoak (15 hiztun) eta 70-80 urte bitartekoak (14 hiztun) nabarmentzen dira grafikoan. Helduenen adin-tarteak batuta, 80-100 urte bitartekoak 13 hiztun izango lirateke. Horrenbestez, elkarrizketatu **gehienak 60 urtetik gorakoak** dira: 54 elkarrizketatuetatik 42 (%77).


50-60 urtekoak izango lirateke hurrengo adin-tartea, 6 hiztunekin; horiek ere multzo polita osatzen dute, baina nabarmen gutxiago dira. 50 urtetik gorako guztiak hiztun osoak eta naturalak dira: nor bere erara baina modu naturalean ikasi eta erabili dute noka, eta erabiltzen jarraitzen dute.

19 eta 50 urte bitartekoak, gazteenak, 6 dira guztira. Hauek ez dira hiztun hain osoak eta naturalak. Noka erabiltzeko zailtasunak izan dituzte, inguruko beren adineko neskek ez zutelako erabiltzen. Ahalegin bat egin behar izan dute edo egiten ari dira erabiltzaile bihurtu ahal izateko, nahiz eta denek jaso duten hitanoa etxean, zuzenean edo zeharka. Belaunaldi berrietan gertatzen ari denaren erakusgarri dira.

Aipatzekoa da elkarrizketatuetako helduena, 100 urteko Joxepa Zumalde, 2019ko urrian zendu zela. Hark emandako datuak ere esanguratsuak dira, eta ikerketaren eremu honetan kontuan izan ditugu (aurrez aipatu bezala, auzoetako datu-bilketatik kendu dugun arren, bertan gaur egungo nokadun kopurua zehaztu behar zelako).

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Elkarrizketatuak non jaioak diren



Elkarrizketatutako 9 kaletarrak dira eta gainerakoak baserri-auzoetan jaioak, nahiz eta asko gaur egun ez diren auzo horietan bizi. Ahalegin berezia egin genuen kaletarrak elkarrizketatzeko, datu-bilketan herrigunea kanpoan geratu delako. Kaletarren lagin bat izatea garrantzitsua iruditzen zitzaigun.

Kaletarren perfilak zehazte aldera: 2 Kanpantxokoak dira eta 4 Lekunbarri auzokoak (*Triana* bezala ezaguna; horietako bik gurasoak baserrikoak zituzten eta beste biek bi gurasoetako bat). Besteak: gazte batek ama araoztarra dauka eta beste batek Larrañakoa, eta badago bat hika Olabarrietako lagunekin ikasi eta erabiltzen duena.

Grafikoan argi ikusten da kopuru handiena Araotz auzoari dagokiola: **16 araoztar** elkarrizketatu ditugu (15 emakume eta gizakume 1). Hitzun bila hasi ginenean, araoztarrak topatu genituen errazen, nokadun gehien duen auzoa delako. Arantzazu auzokoak ere dezente izan dira guztira: 7 (6 emakume eta gizakume 1). Murgikoak, berriz, 5.

Nahiz eta ahalik eta auzo gehienetako nokadunak elkarrizketatzen saiatu, 10 auzo eta herrigunea daude ordezkaturik, ez Oñatiko 16 baserri-auzoak. Falta direnak: Goribar, Lezesarri, Berezaio, Urruxola, Zañartu eta Madalena.


2.2. EMAITZAK

Alderdi kuantitatiboa

1. Auzotik kalera bizitzera

Zenbat joan dira auzotik kalera bizitzera? Faktore inportantea da, hitanoa baserriko hizkerarekin lotu izan delako: herrira jaisteak “estatus aldaketa” dakar eta seme-alabak ez dira baserritarrak, kaletarrak baizik, horrek dakarren guztiarekin (baita hizkuntza-ohiturak ere).

Auzoetatik kalera bizitzera




Baserri-auzoetatik herrigunera bizitzera joan direnak **34** gizon-emakume dira, 45etik (**%75**). Baserrian jarraitu dutenen artean badira auzoa aldatu duten bi ere: baserri-auzo batetik beste baserri-auzo batera joan dira bizitzera. Araoztarren kasuan, 2 dira bertan bizitzen geratu direnak, biak 90 urtetik gorakoak; 100 urtekoa ere bertan bizi izan zen duela urte gutxira arte. Arantzazuko 7 elkarrizketatuen artean ere inor ez da auzoan bizi gaur egun.

Grafikoan kaletarrak ez dira ageri (9). Horien artean badago bat kaletik baserrira bizitzera joan dena.

2. Nola jaso dute noka?

Hitanoa jasotzeko hainbat modu daude. Etxean jaso daiteke, zuzenean: aita-amen edo bietako baten bitartez. Zeharka ere bai: gurasoak ez, baina senitartekoren bat hika zuzendu zaiolako (izeba, osaba, aitona, amona, lehengusua...) edota etxean beste batzuei entzunda ikastea (adibidez, ama eta izeba egunero noka entzunda etxean). Badaude hitanoa auzoan, beste auzo batzuetako lagunekin edo lankideekin ikasi eta erabili dutenak ere. Elkarrizketatuen artean ez dago inor noka hutsetik ikasi duenik: denek izan dituzte nokadunak inguruan.

Transmisioa: elkarrizketatuek nola jaso dute noka?




Elkarrizketatutako ia denek, 50 lagunek, etxean ikasi dute noka: 32 hiztunek zuzenean, gurasoengandik, eta 18 hiztunek zeharka: hitanoa beren familia-giroko parte izan da.

Zeharka jaso dutenak (18): Araotzen 2, Uribarrin 2, Torreauson 1, Zubillagan 3, Olabarrietan 3, Kalean 1, Arantzazun 5, Garagaltzan 1. Etxean zeharka jaso duten 18 horietako gehienek gero auzoko edo beste auzo batzuetako lagunekin (14k) edo lankideekin (3k) erabiltzeko aukera izan dute. Batzuek senideen artean ere hika egiten dute, auzoko giroak kutsatuta. Erabiltzaile bihurtu dira; hori bai, bada bat, 36 urtekoa, oraindik erabiltzaile bihurtu ez dena (lehengusu batek egiten dio noka, baina lagunen artean ez dauka norekin egin).

Ondorioztatu dezakegu **hitanoa ondoen gorde den auzoetan ere guraso askok ez dietela seme-alabei hika egin**: auzoko giroak eraginda edo lagunekin hasi dira erabiltzen. Hurrengo belaunaldiari begira, horrek eragina izan dezake transmisioan: beraiek ere gauza bera egin dezakete seme-alabekin, etxean ikusitakoa errepikatu, alegia.

Etxetik kanpo ikasi duten 4 horien kasuan: hiruk lagunekin ikasi dute (horietako bat kaletarra da eta Olabarrietako lagunekin ikasi du) eta besteak lantokian (beste baserri-auzo batzuetako lankideekin).

Etxean zuzenean jaso dutenak nongoak diren



Zuzenean etxean jaso dutenak 32 dira. Auzoz auzo begira jarriz gero, datu onenak: Araotzen 16tik 14 dira zuzenean jaso dutenak, kalean 9tik 6 (1ek ama araoztarra du) eta Murgixan 5etik 4. Garibain 2 dira (Aurrekomendikoak, aparte geratzen den baserri batekoak). Arantzazun 7tik 2k bakarrik jaso dute zuzenean eta Zubillagan bakarrik (4tik 1ek). Antzematen da gurasoak hika transmititzeari utzi diotela.


Araotzen mantendu da ondoen zuzeneko transmisioa, zalantzarik gabe. Kaletarren kopurua ere handia da proportzioan, baina ez da harritzekoa: kale-giroan noka ez da apenas erabiltzen, eta gehienetan familia barruan mantendu da bizirik, eremu intimoan. Gurasoengandik zuzenean jaso dutenek mantendu dute ondoen.

Aipatzekoa da etxean zuzenean jaso dutenen artean badirela 3, gazteenak, erabiltzaile oso ez direnak, noka dakiten lagunak falta zaizkielako: bik noizean behin egiten dute (amarekin eta, beraz, ohituraren kontra: ohituraz seme-alabak zuka zuzentzen zitzaizkien gurasoei, berorika ez zenean), eta besteak ez dauka norekin egin (amak ez dio uzten berari egiten).

3. Noka dakitenek transmititu al dute?

Nokaren transmisioan etena egon da. Eten hori zenbatekoa izan den jakiteko baliagarri zaizkigu hurrengo datuak.

Transmisioa: elkarrizketuek transmititu al dute?




Transmititzeko aukera izan dutenetatik (3 gazteegiak dira horretarako eta beste 3ren kasuan ez dakigu transmisiorik egon den: seme-alabarik ez dute eta ez dakigu ea ilobarik duten eta haiei egin dieten ala ez), 48tik 30ek ez dute transmititu (%62,5).

Transmititu dutenen artean 13 guraso daude (ikus hurrengo grafikoa) eta seme-alabarik ez duten 5 emakume. Ilobei egiten dietela esan digute, baina batzuetan ez dakigu ilobak neskak, mutilak ala denetik diren; hau da, batzuei bakarrik ala denei egiten dieten.

6 emakumerentzat erabaki kontzientea izan da hika transmititzea. Seme-alabarik ez duten bik (bata Larrañakoa eta bestea Araozkoa) ilobei hika egitea erabaki zuten, aspaldi. Eta lau ama daude seme-alabei hika egitea erabaki dutenak; horietako batek hizkuntza-muda egin zuen

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

duela urte batzuk eta seme-alabei hika egiten die gaur egun eta beste hirurak hizkuntza-aldaketa egiteko prozesuan murgilduta daude (bik seme-alaba txikiak dituzte).



Transmititu dutenen datuak auzoka jarrita, ikusten da auzo askotan transmisiorik ez dela egon. Zubillagan, adibidez, elkarrizketatutako 4 emakumeetatik –laurak amak– bata ere ez du transmititu.

Araotz eta Arantzazu direnez noka ondoen gorde duten auzoak, arreta hortxe jarriko dugu:

Araozko kasua aipagarria da: 16tik 7k soilik transmititu dute hika, erdiak baino gutxiagok. Zazpi horietatik 6 dira guraso (batek ilobei egin die):

- Transmititu duten 6 gurasoetatik 5ek 70 urtetik gora dituzte (horietako 4k 80 urtetik gora), eta seme-alabei bai, baina bilobei ez diete transmititu.
- Beste gurasoa 50 urte inguruko ama da, eta erabaki kontzientea izan da transmititzea: 19 urteko alabari egiten dio, hark eskatu diolako.


Araotzen adinekoek soilik transmititu dutela esan daiteke. Belaunaldi berriek ez. Haien seme-alabak herrigunean jaiok –kaletarrak– izatea izan daiteke arrazoietakoa bat.

Arantzazu auzoan, 7 elkarrizketatuetatik 3k transmititu dute hitanoa. Bik ilobei egin diete, eta guraso direnetatik bakarrak transmititu du, baina transmisioa ez da osoa izan: semeari hika egin dio, baina alabari ez. Transmititu ez duen batek seme-alabei ez die hika egin, baina iloba batzuei –mutilak– bai.

Badirudi Murgixan transmititu dutela gehien: 5etik 4k. Baina zehaztapen batzuk egitea komeni da hemen ere:

- 1ek seme-alaba biei egiten die (erabaki kontzientea).
- 1ek semeari egiten dio eta ez beti.
- 1ek ilobari –neska– egiten dio, baina alabari ez.
- Bestea seme-alabei hika egiteko prozesuan dago: noizean behin egiten die.

Transmisioa: gurasoek hika egin al diete seme-alabei?



Elkarrizketatutako 54 lagunetatik 42 gurasoak dira (%77) eta haiek seme-alabekin izan dituzten hizkuntza-ohiturak ezagutzea garrantzitsua da transmisioaren etena nondik nora gertatu den jakiteko. **%69k ez dute seme-alabekin hika egin** (29 hiztunek: 27 emakume eta 2 gizakume). Gainerako 13 hiztunek bai (%31), baina hor ere zehaztapenak egin behar dira:

- Zenbaitetan ez da transmisio oso-osoa izan (5): Batzuetan bai, baina ez beti (1). Ez beti eta alabei gutxiago semeei baino (1). Ama gazteak dira eta hizkuntza-aldaketa egiteko prozesuan daude (3) (horietako batek alaba bati bai –eskatu egin diolako– baina besteari ez dio hika egiten).
- Semei bai, baina alabei ez (1).
- Alabari ez baina bilobari bai (hura ere neska), amak ere egiten diolako hari (1).
- Seme-alabei bai, baina bilobei zuka (4). Adinez nagusienak diren emakumeak, araoztarrak denak ere. Horietatik gazteenak bi seme ditu, alabarik ez; ez dakigu alabarik izan balu, zer egingo lukeen.
- Adin batetik beherakoan artean (80 urtetik behera) alabari eta semei transmititu dien bakarra dago, eta erabaki kontzientea izan zen (hizkuntza-ohiturak aldatu zituen, modu kontzientean).

Ezezkoen artean aipatzekoa:

- Etxe askotan transmisioaren etena erabatekoa izan da: ez semei eta ezta alabei ere.
- Kasu batzuetan alabak soilik izan dituzte eta ez dakigu semerik izan balute zer egingo zuketean.
- Batek ez semei eta ezta alabari ere; bi ilobari (mutilei, neskei ez), berriz, bai.
- Batzuek diote esaldi solteak erabiltzen dituztela hika seme-alabekin. “Ixilik egon hai” eta horrelakoak.
- Guraso direnen artean, ikusten da etxean jaso ez duten gehienek gero ez dutela etxean transmititu. Hala ere, zuzenean etxean jaso duten askok ere ez dute transmititu. Orokortutako joera izan da ez transmititzea.

Hasieran aipatu dugu familia bereko belaunaldi bat baino gehiago elkarrizketatu ditugula. Hauek dira transmisioari dagozkion datuak:

- Araozko **Enkarna Grisaleña** eta **Mirari Guridi** alaba, Araotzen jaioa. Enkarnak etxean jaso zuen hitanoa eta hika egin dio Mirariri (alaba gazteenari ez, ordea). Mirari herrigunera joan zen bizitzera eta ez die ondorengoei transmititu.
- Araozko **Frantziska Erostarbe**, haren alaba **Marixol Bolinaga** (araoztarra) eta biloba **Irati Barrena** (kaletarra). Frantziskak ez dio alabari hika egin, Marixol auzo-giroan hasi zen hika erabiltzen eta alabari duela gutxi hasi da noka egiten, hark eskatuta. Gainera, baimena eman dio berari hika egiteko, ikasi bitartean. Herrigunean bizi dira.
- Araozko **Joxepa Zumalde** eta bere alabetako lau: **Eugeni** (1949), **Nati** (1946), **Ana Mari** (1944) eta **Arantxa** (1951) araoztarrak. Joxepak sei alabei hika egin die (bilobei ez), baina alabek –inor ez da Araotzen bizi– ez diete seme-alabei hika egin. Bakarrak transmititu du hitanoa, Arantxak, momentu batean kontzientzia hartu zuelako: iloba gehienei hika egiten die; seme-alabarik ez du.
- Murgiko **Marije Ugarte** (Berezaoko eta Murgiko datu-biltzailea) eta **Ane Ugarte** alaba (Murgixan bizi da). Marijek etxean jaso zuen hitanoa, zuzenean, baina semeari eta alabari ez zien hika egin, harik eta erabaki kontziente bat hartu zuen arte. Nerabeak zirela hasi zen haiei hika egiten, eta gaur egun naturaltasunez ateratzen zaio; baina haiek ezin diote amari hika egin. Marije Laudion bizi da, Ane Murgixan.

Alderdi kualitatiboa

Elkarrizketatuek emandako informazioarekin bakarrik ikerketa oso bat egin daiteke, asko baitira bildu ditugun testigantzak eta hitanoari buruzko adar askorekin lotutakoak. Helburua diagnostiko-ikerketa txiki bat egitea zen, eta konturatu orduko ur sakonetan sartu gara.

Beraz, hemen adierazgarriak iruditzen zaizkigun aipu batzuk aukeratu eta ipiniko ditugu, ikerketarekin lotura zuzena dutela iruditu zaigunak, eta ez interesgarriak izan daitezkeen guztiak (informazio gehiago nahi duenarentzat, hementxe daude elkarrizketa guztiak: <https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau/>).

Oñatin andrazkoen hitanoaren –nokaren– bilakaeran eragina izan duten (eta dezaketen) faktoreak hartuko ditugu aintzat. Hauexek:

➤ Nokaren galeraren arrazoiak

- 1-Euskararen desprestigioa, erdararen aurrean. Eta euskalkiarena, batuaren ondoan.
- 2-Hika, baserriarren hizkera. Araozko kasua
- 3-Genero ikuspegia: hika, mutilen kontua
- 4-Erregistroaren beraren mugak (erabilera-arauak eta estatus kontuak)

➤ Nokari buruzko ikuspegia gaur egun

Nokaren galeraren arrazoiak hasiko gara:

1-Euskararen desprestigioa

Jakina da euskara azpiratuta eta zapalduta egon zela gerraostean, Frankismo garaian, eta erdararen nagusitasunak kalte handia egin ziola euskarari. Oñatin bertan, eskola guztietan gaztelaniaz erakusten zuten, baita baserri-auzoetan ere; euskaraz egiteagatik zigorrak ere jartzen zituzten. Herrigunean erdaraz hitz egiteko joera oso zabaldua egon zen. Elkarrizketatuen arabera, euskaraz egitea gaizki ikusita zegoen. Euskarak ez zuela ezertarako balio ere esaten zieten. Baserri-giroan euskaraz aritzen zirenez, gaztelaniaz ez ziren ondo moldatzen eta euskaraz eginez gero ezjakintzat hartzen zituzten. Horregatik, beraiek ere eginahalak egiten zituzten erdaraz egiteko.

Sara (Zubillaga, 1944) *Zenbat bidar esaten oskuen: ‘Con ese txapurriau que no vale pa nada. De San Prudencio pa delante no vale para nada’.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-031/>

Mirari (Araotz, 1955). *Ni 10-11 urtekin etorri nitzan kalera, institutura. Eta bueno eske ez hika eta ez zuka! Erdera hutsian ebilen, gure edadeko jentia erdera hutsian ebilen. Guk ez gekixen erderaz eta bestiak ebizen erdera hutsian. Imajinau gu ze situaziñotan geuzen! Jajaja Jakiñaatik be ez otsuen euskeraz eitten, eta zuk erderaz eitteko problema... bueno, sartzen xatzu konplejua urtietarako!*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-007/>

Mila (Arantzazu, 1949). *Ez zuka eta ez hika. Erderaz. Orduan euskeraz itten bazeben “las caxeras” zan. Eta klaro, guay izateko erderaz egin biha zan. Euskeraz egin ezkeru baserriarra, ta ez geben gura guk be hola señalaitteik.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-016/>

Enkarna (Araotz, 1928) *Kaleko jentia argixaua. Eurek listuaguak. Oñatin hori euki daue euki. Eta erderaz hobeto ekixen eta uste euen euskaldunak tontuak gitzala. Eta geuk be erderaz ikasten ahalegiña danian, geuk be!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-256-019/>

Mari Tere (Araotz, 1948) *Nere adineko neskak danak erderaz eitten euen, e. Eske orduan euskeraz eittia ekixenak be zan bajeza bat. Bai, bai, bajezia. Danak eitten ebein... nik esango neke taka-taka-taka, zuek danok edade horretan erderaz eitten zeuen. Eta klaro, norberak be bai, klaro.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-034/>

Sara (Zubillaga, 1944) *Lehen, egixa esanda, erderaz eitten geben asko, e. Etxian, e, erderaz, bueno... zer danik be ezta! Baina kalian, lagunartian eta fabrikan erderia baina jo ta sua!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-004/>

Elkarrizketatutako emakume gehienen ustez, giro horrek euskararen galeran ez ezik hitanoaren galeran ere eragina izan zuen.

Pilar (Aurrekomendi-Larraña, 1935). *Zeatik hori (hitanoa) etorri zan nunbaitetik, eta konserbau zan. Gero apurtu zan hori. Erderiakin apurtu zan eta kitto.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-010/>

Karmen (Triana, 1936). *Erderia sartu zanian igual, pasau zan hori (nokaren galera). Igual bai.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-252-033/>

Edurne (Garagaltza, 1958) *Bueno eske guk hika, puf! Gure zea zan... eskolan hasi giñanetik erderia zan dana.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-261-017/>

Hika egitea maila bat baxuagoa zen artean: zuka egitea baino “okerragoa” (ikus segidan datorren ‘Hika: baserritarren hizkera’ atala eta 55. orriko ‘Estatus handiagoa dutenei ez’ atala).

Arantxa (Araotz, 1951) *Bai, bai, lotsatu. Baina gehixen bat euskeraz egitten. Euskeraz egitten, bai, bai. (Baina hika ondiok okerrau?) Ondiok okerrau! Ondiok okerrau!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-006/>

Mirari (Araotz, 1955) *Basarritar ignorantiena. Erderaz jakin ez, euskeraz egitten xonau eta gainetik hika! ‘Zuek euskeraz egin biha badozue egiñ biha dan moduan, baina ez hola horraik baserritarrak egitten dauen moduan’.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-042/>

Karmen (Arantzazu, 1951) *Etorri gitzanian Oñatira, por ejemplo gure kasuan, ba hori, hi esan ezkerro ta ba baserritarrak ta ezdakitzer... Bai, nik uste dot hi esan biharrian zu esaten bazeben estabas como un poco mejor vista. Hori, hori da, e. Por lo menos ez ziñan hain basarritarra.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-273-022/>

Euskalkiaren desprestigioa ere aipatu behar da. Gaztelaniaren aurrean euskara kikilduta geratu zen moduan, elkarrizketatu batzuen ustez euskalkiei gauza bera gertatu zitzaien euskara batuaren aurrean. Ikastetxeetan euskaraz irakasten hasi zirenean, batua lehenetsi zen: herrian herriko euskara bigarren plano batean geratu zen, eta zer esanik ez hitanoa, erregistro informala izanda.

Maidor (Uribarri, 1975) *Hittanua erregistro informala don, ez don maila akademikorako.*

Edurne (Arantzazu, 1954) *Nik uste dot ya gure alabak-eta eskolan hasi zianian ya hasi zan asko euskera batua, eta orduan klaro, gure euskera zan totalmente diferentia. Ze egin geben? Eurok guria hartu biharrian, guk hartu geben eurona pittin bat, eta orduan ya hika geldiketan da geure lagunen artian edo familixa artian, baina handik kanpora hika... gutxi.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-273-014/>

Mertxe (Arantzazu, 1956) *Uste dot ikastolatan-eta faktore hori nahiko inportantia izan dala, e. Gure seme-alabak eta eskolan euskeraz ikasi daue dana baina hikan kontzepturik eztaue euki. Eztaue euki sekula be ez. Orduan guri, geuk pe, gurasuok eztogu egin geure artian hika... eta ba ya está. Nun entzun biha daue?* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-261-027/>

Maidier (Uribarri, 1975) *Norbere hizkuntzia etxonai asko prestigiau izan gure aurreko belaunekuak, egixa don, ezta? Eta gero euskera batua etorri zanian, hor be seguruenez egon don ba batzuendako behintzet euskalkixa prestigio gutxiukua izatiana, ezta? Eta klaro, horrek pe hikari etxanan mesederik ingo, beste gauza askori letxe, ezta?*

2-Hika, baserritarren hizkera

Aurreko atalean aipatu dugu kalean euskaraz ziharduena baserritartzat hartzen zutela, sasoi batean. Hika egiten zuena are baserritarragoa zen. Euskaldun “ilustratuek” nahiago zuten zuka aritu: errespetuzkoagoa iruditzen zitzairen, jasoagoa. Hitanoa baserri-giroarekin lotzen dute askok gaur egun ere, baserri-giroan gorde delako ondoen.

Mirari (Araotz, 1955) *Garai baten euskeria be bai eta oiñ ba hika asunto hori basarrikua da.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-042/>

Ros (Uribarri, 1952) *Bai, ba baserrixan ikasten diran hitzak moduan: kalian erabilten ez ziranak eta ez diranak. Ba baserrixan. Baina handik kanpora...* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-244-010/>

Marije (Murgixa, 1956) *Etxaonan oso ondo ikusitta. Gu gitzonan oso basarritarrak, puntakuak, eta kalegiro eta garai hartan erderaz edo egitten zonan gehixau... baina giro ilustrau samarretan etzonan... hika pentsau be ez. Hika pentsau be ez.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-014/>

Eli (Zubillaga, 1947) *Egixa da ba hikakua egon dala... -Baztertuta? -Aber, baztertuta edo... -desprestigiauta? -Bai, e... Pixka bat... geizki ikusitta. Haundigurakuak edo, haundigurakuak, horreik horreik aspaldi itzi euen hikako formak.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-039/>

Baserritarrak izateaz harro daude batzuk orain, baina elkarrizketatu gehienak gorriak ikusitakoak dira: baserritarrak izateagatik gutxietsi egiten zituzten, eta konplexuz beteta zeuden. Hitanoa “baserritarren hizkera” zela pentsatu zuten beraiek ere, eta ez zela egokia kalerako. Herrigunera bizitzera joandako gehien-gehienek ez diete seme-alabei hika egin, haiek kaletarrak direlako (eta ez baserritarrak).

Mari Tere (Araotz, 1948) *Bai, bai, nik uste dot konplejua euki dogula. Bai, zeatik kalera etorri eta hika ittia... hola uf, kalian...* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-012/>

Sara (Zubillaga, 1944) *Konplejua euki eraiñ oskun, e: 'Boronas, caseras'.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-030/>

Ros (Uribarri, 1952) *Geure konplejuak! Nik uste dot, baserritar konplejuaatik, eta igual guk garai hartan fin-fin egingo geben: hika igual etxian itzitta ibilliko giñan. Ba igual disimulaittia gurako geben, basarritarrak giñala, momentun batzutan.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-244-013/>

Mari Tere (Araotz, 1948) *Eta ez hori bakarrik: gero zan araoztarkeixak! Hori zan... uuu, hori araoztarkeixak, hor be konplejua. Esateko moduan gure euskeria ez zala, ez zala ona.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-017/>

Mirari (Araotz, 1955) *'Araoztarren modukuak behintzet ez izan, e. Harein moduan behintzet ez konportau, e!' Zeatik klaro, neskak ibiltten zian neskakin eta mutillak mutillakin, aparte ibiltten zian, eta gu ibiltten gitza danak pillaan. Eta mutillai. 'Hi, fan hai!' Hi ezdakit zer ta... danak hola ibiltten gitzonan. Hi tta hi tta hi danak. Eta klaro, hori guraso batzueendako zan... ejemplo txarra!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-042/>

Ros (Uribarri, 1952) *Gu pixka bat basatixaguak igual, izango zan betik hori, ez? Apur bat betik baserritarrak eztakitzu... salbaje samarrak edo hola.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-244-013/>

Arantxa (Araotz, 1951) *Bueno, gu holako konplejuakin ibilita, gero erakustia? Hori be entendiu egin biha da.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-020/>

Mirari (Araotz, 1955) *Hi, gu igual Araotzen bizi izan bagitzunan igual gure seme-alabai hika egngo gizenan. Segurutik. Baina herrixan bizi izan gara azkenian.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-024/>

Gehienek modu inkontzientean eten zuten transmisioaren haria, ia oharkabean. Hori bai, familia batzuetan, seme-alabei hitanoa ez transmititzeaz gainera, etxean hika egitea galarazi zieten.

Pilar (Aurrekomendi-Larraña, 1935) *Nik ez dostet hika berba egiñ eta ez zan ez egittiaatik, ez zalako egitten ya, ez zeuelako kostunbrerik hori egitteko. Ez zan erabagittako gauza bat izan.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-013/>

Alaia (Uribarri, 1985) *Jakingo balei gaur egun galtzeraiñoko puntura bajau dala, seguru egiñ egingo otsaila: esango ebein: 'Ez, ez, ez daixela galdu, ez?'. Baina ez dogu pentsaitten. Inkonszienteki, hori da problemia askotan, ez? Inkontzienteki eitten diran gauzenak.*

Pili (Larraña, 1953) *Transmisiño faltia egon don. Baina transmisiñua ezton izan itzi daueila iztiatik, batzuk itzi izan xone gurata. Ez xone transmitiu pentsaitten ebeilako etzala egokixa hola berba ittia. Horrek pentsau xone: 'Ez, zuka askoz goxuagua da, askoz errespetuzkuagua da, hau besteau ezta errespetokua be ezta', horrekin lotu izan*

dauelako. Gurata: 'Gure familixan gure amak ez oskun izten egitten'. Bi-hiru familixatan entzun xonat hori. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-246-023/>

Kontxi (Kalia, 1961) Jo, edukaziño faltia edo. Gure amari edukaziño faltia pentsaitten xakon. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-279-003/>

Kaletarren artean, elkarrizketatueta 4 Lekunbarri auzokoak dira, Trianakoak. Aipatzekoa da baserritarrak ez izan arren haiek ere bazutela "bazterrekoak" izatearen sentrazioa, auzoa herrigunetik aparte samar geratzen zelako:

Karmen (Triana, 1936). Gu giñan oso berezixak. Nik uste dut gu ondiok e... Trianarrok... modernizau barik, zelabaitt esatearren. Bastante salvajes. 'Trianatarrak? Bai, kontuz horrekin, trianarra dok eta!'. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-252-013/>

3-Hika, mutilen kontua?

Orain arteko arrazoiak aintzat hartuz gero, hitanoaren gainbehera gizon eta emakumeen artean berdina izan beharko litzateke. Alabaina, noka galtzen joan da eta toka ez; mutilen hikak osasun nahiko ona dauka gaur egun ere. Ikus dezagun zergatik izan daitekeen. Genero ikuspegiak badu zer ikusirik. Elkarrizketatu gehienek diote desberdin ikusten dela hika darabilena emakumea ala gizona izan. Are gehiago: hitanoa mutikoen eta gizonen kontutzat hartzen dela askotan. Hitanoa baldarkeriarekin lotzen da eta emakumeak fina izan behar du.

Esperanza (Aurrekomendi-Garibai, 1942) Esaten daue, gainera, emakumiak hika egittia itsusixagua dala... gizonenkuak ez, baina emakumiak egittia. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-024/>

Maidier (Uribarri, 1975) Mutikokerixakin edo zakarkerixiakin bai lotu izan dala, ez? Emuten dau ba hori: gizon artian ibiltteko gauza bat. Eta orduan ba emakumiari pegaitten ez dosten zeoze balitza moduan.

Kontxi (Kalea, 1961) Hika egitten dotela entzun eta nere amak bueno, hori edukaziño faltia pentsaitten xakola. Andra artian. 'Iguale andrak mutilai ez, mutil artian be ez, baina andra artian hika hori edukazio falta gogorra da, e'. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-279-002/>

Mari Tere eta Kontxita (Kanpantxo, 1928) -Ez xakun gustaitten. -Pentsaitten neben baserritarrana zala hori. -Entzun, zea da baina... araoztarrak, menditarrak eta a menos. -'Geizki emuten xon horrek, hola berba ittiak'. Emakume artian. 'Oñ, gizakumiak ondo dau, baina emakumiak gaizki emuten xon!'. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-282-014/>

Nerea (Murgixa, 1977) Eske nesken artian da... e, oiñ ya gero ta gutxiu uste dot dala, e, baina iguale "atsuak", ez? Ez dakitt.

Mila (Arantzazu, 1949) eta Maria Jesus (Olabarrieta, 1952) -Guk e 'las caxeras' esaten oskuenian ta erderaz egitten gebenian, mutillak euren artian euskeraz egitten euen. Ta inkluso kalekuak be bai. -Eta ez dakitt gainera mutillai ta hola 'kaxeros' horreatik iñoiz

esan izan xaten. -Desberdina zan, e. Guk hartu geben erderarako joeria baina mutillak segitzen euen euskeraz egitten. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-031/>

Sara (Zubillaga, 1944) *Eta mutilak dantzara etorten ziranak eurak egitten ebein euran artian euskeraz, baina guri egitten oskuen erderaz.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-004/>

Ana Mari (Araotz, 1944) *Ba igual nere kasuan: Araozko lagunak etorri eta geure artian hika hasi, eta mutillak burla.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-006/>

Mertxe (Arantzazu, 1953) *Hor igual egongo da matxismo apur bat be baitta: egongo don hori be? Zeatik, klaro, neskak emuten dau hika hola badabitz gauza zakarra edo baldarra dala, ez? Eta mutil batek guay edo... gehixau azeptaitten dala edo...* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-244-026/>

Jone (Triana, 1937) *Emakumia zan halaxe: izan biha zan suabiagua, izan biha zan edukadiagua, izan biha zan. Gizakumia, berriz, baldarragua izan biha zan.*

Nerea (Murgixa, 1977) *Hika egitten dauen emakumia da igual baldarra edo... baldarkixia edo, eztakitzu? Bai? Eta ba gizonezkuan artian ez. Gizonezkua gizonagua inkluso, ez? Eztakitt.*

Marije (Murgixa, 1956) *Etzunan jasua, etzunan dotoria. Zunan txusma hizkuntza. Hori. Eta mutillak beti euki xone eskubide gehixau txusma izateko be, biharrezkua bada. Lotsabariaguau izateko... eskubide horraik izan dittun beti... emakumiok fiñau, zintzuau, esanekuau... beti izan bihar izan xonau.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-014/> / *Gizartian gertaketan dian beste milla fenomenon zati don hau be. Emakumiok izan biha xonau zintzuaguak, fiñaguak... enfin, pittin bat gizartera itxuroso agerketako modukuak eta hori. 'Hika ezton bapebe dotore geldiketan, e'. Nere lankide batek esan eiñ xostanan.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-019/>

Mila (Arantzazu, 1949) *Gizonak astokeixa bat egittia ba, bueno, normala zan, baina guk egittia ez. Osea, baloraziño desberdina dako soziedadian emakumienak eta gizonenak.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-031/>

Uste horiek eragina izan dute elkarrizketatuengan, eta askok sinestu egin dute zuka aritzea finagoa eta errespetuzkoagoa dela.

Ros (Uribarri, 1952) *Neuk be eztakitt ez dakoten pertzeptziño hori, bai: igual mutilak gehixau entzunda hika... bai, takarragua. Hika egitten, emakumiak baino.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-244-017/>

Maria Angeles (Araotz, 1946) *Nik uste dot guri erakutsi oskuela, ikasi dogula goxotasuna zala zu.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-041/>

Mari Karmen (Lekunbarri, 1935). *Geure artian bai, baina seme-alabairi... pentsaitten xat errespeto faltia letxe. Nik oiñ esatia lñakiri: 'Etorri haiz?'. Es que es ordinario!*

Joxepi (Aurrekomendi-Garibai, 1936) *Pentsaitten xonat emakumiok gehixau pentsau dogula alkarrei hi berba egindda bajau egitten gariela, eta hola zu berba egindda ba*

gehitxuau ete garien. Gehixau ete garien. Nik hori pentsaitten xonat.
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-032/>

Mutilen eta nesken sozializatzeko moduak desberdinak ziren sasoi batean: aisialdian eta lanean hika jarduteko aukera izan zuten mutilek, eta hizkera mantendu egin zuten, nahiz eta etxean jaso ez. Emakumeak, berriz, gutxiago sozializatzen ziren; etxeari eta zaintzari lotuago bizi ziren.

Belen (Arantzazu, 1963) *Oin bai, elkartetan emakumiak sartu gara, ta leku askotan, ez? Baina hor gauza asko egon dira urte askotan gizonezkuanak bakarrik ziranak eta ondiok jarraiketan daue leku askotan, eta hor nere ustez asko landu daue eurak eta mantenu daue. Guk igual beste leku batzutara fan gara eta... gehixau inportau dosku izan dosku ze esango ete dauen gureatik eta holako istorixak.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-031/>

Mariaxun (Zubillaga, 1948) *Hor e garai hortan (gizakume) danak soziedadian egoten zian, egunero egoten zian. Goiz eta arratsalde. Eta orduan jarraipen bat euki dau, baina emakumiak ez gara egon kalia denpora hortan eta orduan oso noizbehinka... eliza, eliza izan da... neretzako hor, hor egon da eten bat. Eurak jarraitu daue ba euki dauelako, ba ohitura bat egon dalako, ez? Eta gu, berriz, oso noizbehinka egoten giñan.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-044/>

Enkarna (Araotz, 1928) *Beste alternatiba bat euken gizonak. Emakumia etzan faten tabernara be, gizonak euren eskubide danak.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-256-027/>

Belen (Arantzazu, 1963) *Ondiok aste hontan emakume bateri, emakume bateri entzun xat esanaz: eske nola urten leike kinttotan neskaillak hor ardaue edaten eta kalia kantuan!*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-031/>

Marilu (Olabarrieta, 1962) *Guk zenbat deporte ta zenbat egin dou ba han zerian? Deporteik ez. Mutilak bai, baina guk ez, e.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-279-034/>

Maidier (Uribarri, 1975) *Igual emakumiak gehixau lotu dittun etxera eta igual aisialdi gutxiu eduki xonai emakumiak, hori egixa don. Etxetik kanpoko eremu sozial hori gizakumiak beti eduki xonai, ezta? Dala aisialdixan edo dala lantokixan, ezta? Ze ya etxetik kanpora lana egiñ izan dauenak beti izan dittun gizakumiak, ezton? Eta egixa da hor bizirauteko eremu bat eduki dauela gizakumien arteko hika horrek. Eta emakumiak, barriz, etxetik kanpo lana egitten geruau hasi dittun, ya emakumien arteko hika hori galduta euela. Eta orduan biharbada bai, gizakumien hikak bizirik iraun xon eduki dauelako maila sozialeko eremu hori, ezta? Erabilteko berdinen arteko talde horreik, gizakumienak.*

Eugeni eta Ana Mari (Araotz) *Gurian semiak egitten dau hika.-Baina mutillakin! Bai, egitten xonai! –Eitten xonai eurak. –Mutillak eitten xonai. Nire semiak pe bai euren lagunakin. Baina mutillak, neskak ez! Neskak eztaue itten. / Oiñ, guk ez dostegu eureri hika eiñ. Seme-alabairi sekula. Iñori be ezta.*
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-004/>

4-Erregistroaren beraren mugak

Hitanoa erregistro berezia da eta erabilera-arau propioak ditu, transmisiorako traba bihur daitezkeenak eta, beraz, noka galtzeko akuilu.

- **Hurbilekoei bakarrik: eremu intimokoa.** Elkarrizketatu guztiek diote noka konfiantza dagoenean bakarrik erabiltzen dela, ez edozeinekin. Gizakumeen artean ohikoagoa da gutxi ezagutu arren hika egitea, baina emakumeen artean ez. Horrek lehen hitza zuka egitea dakar, eta askotan lehen hitzak markatzen du harreman-hizkuntza zein izango den.

Karmen (Triana, 1936) *Uste dot hika egitten dogula konfiantza asko dakun personak, ezta? Nik edozeñeri ez xat egitten hika.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-252-004/>

Xeferi (Araotz, 1933) *Zuri sekula ikusi bariak etorten baxatzu, hi-tta ezin zatzu hasi. Hori nik normala topauten dot.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-256-023/>

Bittori (Araotz, 1928) *Ezezaun bat etorten bazatzu atera, hari hi sekula be ez, e. Guk be kalera fanda, ba han ezezagunak, eta ezezaguneri ba zu eta hi hau gutxi ebali. Horreatik galdu da gero: gutxitxuau ebali, ezauntxuau bakarrik egiñ... eta gero ba azkenera orduko ba gutxittu!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-256-023/>

Mari Tere (Araotz, 1948) *Jende ezezagunai normalian hasieran zuka egingo xat, baina gero hartzen dotenian tratu edo konfiantza gehixau edo, ya hikara pasaitten naiz.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-013/>

Maidar (Uribarri, 1975) *Neri ezaun eta ezezaunakin berez hi egittia, nere maillakuak diran danakin, etxostan urteten. Etxostan urteten hori, bestia ados, bestia konforme egon ezian, ni ez naun atrebitten berez hi egitten, ezton? Eta beste batzuk egitten xonai. Gizakumiak nik ikusten txunat lankidien artian-eta: etorten don lankide barri bat eta arra baldin badon, hasten dittun hika automatikoki, aurretik ezautu barik. Eta emioiri etxoskun urteten. Eta gizakumiari emakumiekin be ez. / Hori preguntak egitten ibili naizenian be esan xostanai, ezta? Hika egitten dauen emakumiak esan xostan, ba nik halakokin, halakokin eta halakokin. Seguruenez gizakume bati preguntau, eta gizakume horrek ezauketan eztauen beste gizakume bat ikusi eta hi egingo xon... osea, bere parekotzat hartzen baldin baxon... hika hasiko don natural lehenengotik. Eta emakumiok, berriz, ez gaittun hasten.*

Araoztar batzuek auzokoekin eta beste baserri-auzo batzuetakoekin –hurbilekotzat jota edo– lehen hitza hika egiteko ohitura izan dute, baina kalekoekin badirudi ezetz.

Belen (Arantzazu, 1963) *Gaztetan nik ez dot egiñ hika, ez, baina gero ba hori, Araozko jentiaikin asko ibili naiz. Betik egin dot baina ez neke esango nun, zela... ba igual da lehenengo hitza, oso inportantia da. Norbait ezaututen dozunian lehenengo hitza uste dot inportantia dala zela egitten dozun, eta gero ya referentzia bat da.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-011/>

- **Adin beretsukoen artean.** Gazteagoi bai, baina gurasoei eta adinekoei ez zaie hika egiten: errespetu faltatzat hartzen da. Normalean, adin beretsukoen artean erabiltzen da hitanoa. Parekotzat ditugunen artean: adinez nagusiagoa izan arren, laguna baldin bada – lankidea, adibidez– bai, baina gainerakoan ez. Gurasoek seme-alabei hika egin arren, haiek

ezin diete hika erantzun, tratu bereziren bat egiten ez badute behintzat (elkarrizketatuetakoa bik, Nereak eta Iratik amari hika egiten diote, baina Aneri amak ez dio uzten). Horrenbestez, noka dakien adinkiderik edo lagunik ez badute, hika jakinagatik, ez daukate norekin erabili.

Maria Angeles (Araotz, 1946) *Guraso bati hika egittia? Hori zan edukaziño faltia, e.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-002/>

Pili (Larraña, 1953) *Guri gurasuak hika egiñ arren, etxonau sekula pentsau be egiñ bueltau behar dogula hika.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-246-007/>

Marije (Murgixa, 1956) *Zeinekin egin falta don! Anek berak baxakin, momentu honetan esango ñeken... baina guri ezin xoskun egin. Nerekin ezin xon egin. Batzutan itten xostan, eta esaten txanat: 'Ezta pentsau be! Neri ez, neri zuka egingo xostan bai ala bai'.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-017/>

Ane (Murgixa, 1993) *Nahiz ta konsideraitten doten badakittela, o sea, ni kapaz naiz: pentsaitten dot: joe, ba kapaz naiz konbersaziño bat mantenitteko, baina ez dakot iñobe inguruan egiñ ahal xatena.*

Marixol (Araotz, 1962) *Iratik dako baimena neri hika itteko. Badaki berak zaharrau bateri eztala egin bihar, eztauela ondo ikusitta, baina dako baimena, ikasi daixen batez be.*

Irati (Kalea, 1999) *Oin dala urte eta erdi lehenengo aldiz esan notsan: 'Bai, ama, egiñ neri hika, ikasteko'. Ta hor hasi giñen.*

Maidier (Uribarri, 1975) *Nik etxian aittari beti entzun txanat guri egitten eta natural jaso xonat, baina gero ez nebela erabiltten ikusten nixonan. / Mutikuak bai, hor edade baten hasi dittun... eta auzoko beste mutiko batzuk pe ba gure edade inguruko beste mutil batzuk be nik hika entzuten txunat oiñ eta nahiko normal, gehixenian hika egitten xonai, baina neskon artian ezton hori pasau. Oiñ anaiak bere kuadrillako bere lagunakin bere kaza-lagunakin, nahiz eta kaza-lagunak askotan gure gurasuen edadekuak izan, ezta? Hika egitten hasi zonan, ba hortxe e.*

- **Estatus handiagoa dutenei ez.** Errespetuaren kontua ez da adinera mugatzen. Estatus soziala ere tartean dago: eliza-giroan eta familia aberatsetan ez da egokia ikusi izan hika aritzea, azken hamarkadetan bederen (badirudi sasoi batean ohikoagoa zela elizgizonen artean ere). Errespetuaren izenean, gutxienez zuka eta bestela berorika egiten zitzairen apaizari, medikuari, maisu-maistrei, mojei, fraideei... eta etxe batzuetan baita gurasoei ere. Haiek, berriz, "beheragokoei" normalean zuka zuzentzen zitzaizkien. Ez dakigu noiztik baina sasoi batetik hona hitanoa maila baxuko erregistrotzat hartua izan da, orokorrean. Seguruenez baserri-giroarekin lotu izan delako (47. orrian ere aipatu dugu handinahiek eta ilustratuek ez zutela hika egiten).

Maidier (Uribarri, 1975) *Hika egittia, buf, errespetu faltia dala... eta holako komentarixuak entzun xostienat bat baino gehixaori. Eta argi xaon hor egon dala hikaren kontrakotasun bat, ezta? Eta klaro, ba eduki dauela emakumiengan eragin haundixagua gizonen artian baino. Eta argi xaon nunbaitetik etorri dala mespretxu bat, nik ez dakitt erlijijiñuak eduki dauen zerikusixa o zerk eduki daben, baina zatartzat, hori, hizkuntziaren ezaugarri bat zatartzat jo xonai. Klaro, xakon estamenduekin eta jerarkiakin eta loturia, ezta?*

Pili (Larraña, 1953) *Batzuk bai, guraso batzuk pentsaitten ebein zakarragua zala edo bueno, hori kendu egin biha zala gure hizkuntzatik, ez? Baina etxakiñat eurak ze ikusten ebein, zala zakartu, euseria zakarketan eben... formula bat. Igual errespetu faltiakin lotzen ebein batzuk. Hola kalian eta lagunartian-eta egitteko hola zabortxo moduan, hala, hori.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-246-022/>

Kontxi (Kalea, 1961) *Jo, edukaziño faltia edo. Gure amari edukaziño faltia pentsaitten xakon. Bai.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-279-003/>

Aintzane (Errekalde, 1981) *Beti demostrau biharra, ezta? Beti txukun eta edukaziñuakin eta zuka eta berorika baldin badon hobeto, ez? Ondio... ‘con más respeto’ esaten dana, ez? Nere ustez dana estatus kontua don. Ze eurak hola jasoko xonain seguramente, ba gutxiu izandako edo perzepziñuakin, eta esango xonain: ‘Jo, ba nik etxonat gura nere seme-alabak iñok baztertzia o iñok gutxiestia hizkuntza hau erabilttiatik’.*

Emakume askori entzun diegu “errespetuz ez tratatzeko beldurra” izaten dutela hika egiteko orduan.

Maidier (Uribarri, 1975) *‘Zu’ gaur egun errespetuzkoa nahiz hurbillekoa izan leiken baina ‘hi’-k baxakon hori, mailla berekuena bakarrik izateko muga hori, eta orduan norberak zela ikusten dittuen bestiak –edadez edo mailan– ba urteten xon edo etxon. Eta emakumak erreparo gehixau xakonau. Seguruenez horrek be baxakon eragiña, egiñ edo ez egiñ billur hortan. Bestiak ze pentsauko ete daben edo...*

Arantxa (Araotz, 1951) *Betik hika urteten nontan, baina hika be klaro segun zeinekin, nola, ze egoeratan eta zeian, kontuz, kontuz, kontuz! Porque vamos, zan... apurtxo bat lotsatu. Bai, bai, lotsatu!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-006/>

Jone (Triana, 1937) *Segun zeinekin, e, ‘de hi’ samurrau egitten dozu. Baina konfiantza gehixaukin. Baina zuk ikusten badozu nik baino kategorixa gehixauko persona bat dala edo dakixena dala, bueno... pentsau be ezta ‘de hi’ esatia! Ezta pentsau be. Konfiantzia ez badakotzu, nahiz eta pobria izan, zuk ohitturia ez badakotzu harekin berba egitteko ‘de hi’, ba pobre bateri be de zu egitten xatzu, baina betik errespetu gehixau dakotzu ‘de zu’ egitteko zeuk ikusten badozu zeu baino gehixauko zea bat dala.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-266-035/>

Mari Karmen (Triana, 1935) *Hori (hika egitea) errespetu faltia don? Edo geuk xakonau billurra horrena? Porke etxau zetan errespetua faltau!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-266-035/>

Maria Angeles (Araotz, 1946) *Esan doskuelako igual hika dala... nik uste dot hori be badakula: zala hola, edukaziño... hori, edozeñeri ezin lake hika egiñ, e? Hika nik uste dot neri eduki dotela hola... esateko moduan, edozeini ezin laike egiñ hika. Eta horreatik oiñ batzuri oso samur eta beste batzuekin kosta egitten xat.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-002/>

Maidier (Uribarri, 1975) *Hika egiñ ezkerro baten bati eta gero harek neri hala erantzun ez, bai sentitten xonat nabillela neu gainetik jarten edo gutxiesten edo... edo harrotasun sentsaziño bat bai, hori neuk be bizi izan xonat. Eta ez xostan horrek... eta*

orduan egitten xonat 'zu'-ra pasau. Neu be ez naun eroso sentitten, hika horrek gainetik jarten nauela pentsau ezkerro.

Araozko maiorazgo etxeetan zuka hitz egiteko joera zutela ere aipatu dute elkarrizketatu batzuek, nahiz eta baserri xumeen jabeak izan, zuka aritzen zirela erreterroak/maizterrak baino gehiago zirela erakusteko edo. Besteengandik bereizteko, “eskolatuaren itxura” egiteko.

Agurtzane (Araotz, 1956) *Ez dozue zuek pentsau edade bateko jentiak ez dauela pentsau baitta garai haretan zuka berba egittia zala, e, errespeturako zer gehixau? Kategorixia edo... Gure aittak kontaitten zittun istorixak, maiorazgo etxetakuak danak, danak, aittak kontaitten zittun kontu danak zittuan maiorazkuen artian zuka. Ba igual ba euren arteko haserriak, batek ze esan otsan eta bestiak ze esan otsan, aittak danak kontaitten zittuan zuka. Jente horreinak.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-021/>

Mirari (Araotz, 1955) *Maiozaguak zien etxetan ba igual egongo zan hor, legen batzuk e... errespetua edo... Klaro, euren artian errespetua euki biharra euen, euren nibelian. Abariei, medikuai eta beroi esaten xaten moduan, ba eurak esango euen: 'Gu hurrenguk gara eta guri zu, zuka. Zuek hor behian zauzai eta hika'. Holako zeozer. Eurak euren artian sentitten ziran hola, nibel baten euzela, bestiak baino altuagua. Orduan, euren artian, bata bestia errespetaitteko, zuka. Gero eurak bestiari esateko hika seguruasko egingo euela danak.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-264-021/>

Baserritik herrigunera bizitzera joateak ere “estatus aldaketa” suposatzen zuen zenbaitetan. Araoztik kalera bizitzera joandako batzuei, adibidez, zuka egiten zieten. Mahainguruetako batean garbi ikusi zen hori. Enkarna Grisaleñak eta Xeferi Erostarbek Bittori Goitia lagunari zuka egiten diote, eta Enkarnak hala azaldu zuen zergatia:

Enkarna (Araotz, 1928) *'Zu'-k errespeto bat dako, dako bere gauzia. Guk bixok (Xeferik eta biek) hika, honi (Bittoriri) 'zu'. Hau kalera fan ta errespetu gehixau edo ez dakitt ba zeatik. Esateko moduan be: honaik gu baino adelantauak izan dira. Gu ba ez, beheratxuau egon gara. Bai, bai, zuek ilustrauak izan zarai zuek, buenooo...- (Bittoriren erantzuna) Bai zera! Zuek pentsau! Zelako ilustrauak izango giñan gu, hango mendi tontorrian egonda!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-256-023/>

Elkarrizketatu batek esandakoen arabera, hitanoa ez da beti gaizki ikusia egon, eta elizgizonek ere erabiltzen zuten, sasoi batean. Bere familian behintzat hala gertatzen zen:

Eli (Zubillaga, 1947) *Aittak eukan lehengusuak agustinuak eta Don Tomas Igarzabal obispua, Aitta Madina lehengusua... eta horreikin danakin hika egitten eben eta eurak pe bai aittakin eta gure osabakin ta izebakin ta. Gure tia Jesusakin ta hika, ez? Orduan, nolabait bageukan kaleko referentzi batzuk eta horraikin be gure etxeak hika, ezta?* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-034/> / *Zaharraguak egitten xonain, nik uste dot garai hartan nehikua normal eitten euela... Normal eitten zan euren artian. Gero entzuten hasi zan ba hika edukaziño faltia, ezdakitz... Eta orduan horrek ez dakitt atzeratu edo... Nik uste atzeratu egin dala.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-039/>

- **Ume txikiei ere ez.** Ume txikiei ere ez zaie hika egiten. Koskortu artean, hitz egiteko gaitasuna bereganatu artean, ez. Hizkuntza-muda noiz egin behar den ez dakitela diote elkarrizketatutako batzuek. Izan ere, lehen modu naturalean ikasten zuten, noiz eta nola egin, inguruan entzuten zutelako (gurasoak hasten zirenean, orduan hasten ziren beraiek ere anai-arrebei hika egiten), baina, ohitura galtzen joan ahala, erreferentziak ere bai.

Pili (Larraña, 1953) *Neretzako behintzat ezton oso egokixa guraso batek ume txiki-txiki bati hika itxia. Guri gurasuak pe gu txiki-txikiñak giñanian etxonai erabili hika gurekin. Koskorketan hasten giñanian, ez dakitt 8, 9 10 urtekin hasten zittunan ya hika esaten. Sekula ez doskue esan: 'Bueno, ya 10 urte dakotzu eta eiñ biha dou hika, edo 8 dakotzu eta eiñ biha dou hika'. Ez nixonan esango noiz, baina hala zala bai. Nik ikusten xonat aitta gazte bat ume txiki-txiki bati, pare bat urteko bati, hika eitten eta uf, gogorra egitten xatan.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-246-007/>

Marije (Murgixa, 1956) *Idatzi bariko arau horraittan, oso garbi xauan: ume txikiñairi ez. Eta noiz hasten zunan? Ba esango ñeken 6 bat urtekin, garai hartan Jaunartzia eitten zalako. Komunixua eitten zunan 6 urtekin eta hori zunan soldautzia moduan: Jauna hartu eta gero, nagusixen mundura.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-009/>

Joxepa (Araotz, 1919) *Txikittan honeiri (alabei) be beti zu. Baina gero behin fiestatik aguro etorteko eta demanda egitteko hi.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-258-015/>

Mari Tere (Araotz, 1948). *Umiei normalian euskeraz samur egitten dostezu baina beti zuka. Eta ez dakitt noiz aldatu biha dan, ze fetxatan, hika egittia gaztiari. Illobairi igual, klaro!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-013/>

Arantxa (Araotz, 1951) *Igual txikitxuai, 3 urtekuai, ez xat urtengo. Baina illoba haundixeri askori hika. Peruri-eta... 9 urte dakoinak, ez.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-004/>

Gaurko egunean seme-alabak “beti ume” direla ere badiote elkarrizketatuetako batzuek: lehen 8-10 urterekin lanean hasten zirela; orain, berriz, amaren gonapean daudela 25 urterekin ere. Eta horrek trataeran ere eragina izan dezakeela.

- **Senararekin edo emaztearekin ere ez.** Nobio garaian posible zen elkarrekin hika egitea (ez zen oso ohikoa, hala ere; gehiago jotzen zuten zukara), baina, behin ezkonduz gero, zuka egitea zen normalena. Horregatik, etxe gehienetan seme-alabek ez dute hika entzun, gurasoek jakin arren, ez dutelako beraien artean erabili. Gurasoen artean beti zuka entzun dute elkarrizketatuek ere. Hori bai, salbuespenak ere badira; elkarrizketatuetako bik senarrekin hika egiten jarraitu dute, eta herrian badira kasu gehiago ere.

Nati (Araotz, 1946) *Bueno, gizonakin sekula ezton egiñ, e! Ez, ez.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-004/>

Jesusa (Araotz, 1947). *Gu bixon (senarra eta biak) artian 'zu'. Ez dakitt da ba errespetua edo... ba hoixe, zuka.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-009/>

Mariaxun (Aurrekomendi-Garibai, 1936) *Nik ezauketan dot bat bere gizonari hika egitten xauena be, hementxe Oñatin. –Gizonari? (ondokoak harrituta) –Bai, bai. Andriak gizonari hika!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-026/>

Eli (Zubillaga, 1947) *Nere kasuan nik Tomas ezautu nebenian ba guk taldian hika egiten geben beti. Eta Tomas sartu zanian ba hika baitta. Eta handik gero hasi giñan Tomas eta ni bikote moduan, eta jarraitu egin geben. Gainera, planteau be ez geben eiñ, e, beste erregistrora pasaittia. Eta nik badakitt batzuetan gu bixon arteko elkarrizketa horreitan familixako batzuk pe pittin bat harrittuta edo, e... baina bueno, guk hola jarraitu dou.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-022/> / *Orduan geure seme-alabak belarrixa eginda dakoi, badakixe, baina eurakin eztoqu eiñ eta hor eten da.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-009/>

Nati (Triana, 1949) *Nik gizonakin hika egitten dot, baina ez xako gustaitten. Esaten dost ez hika egitteko.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-252-008/>

- **Taldean ere zaila.** “Zu”-ren ordezkoa da “hi”, singularra. Nahiz eta pluraleko “gabitzan” eta “xonau” moduko formak ere erabiltzen diren, “gu”-ri dagozkionak, “zuek” formak ez dauka ordainik hitanoan. Beraz, erregistro honek biren artean jarduteko balio du gehienbat, eta ez hainbeste talderako. Gainera, taldekidea mutila izan ala neska izan, hari zuzentzeko modua ere aldatu egiten da, eta horrek aditz-formak etengabe aldatzea dakar. Are gehiago taldekide batzuekin hika eta beste batzuekin zuka arituta. Horrek guztiak hitanoaren erabilera baldintzatzen du, noski. Elkarrizketatu batek baino gehiagok hitz egin dute erregistro-aldaketak sortzen duen nahasteari buruz.

Maider (Uribarri, 1975) *Bakarka egitteko gauza bat don, ezton? ‘Hi’ eta ‘hi’ eta ‘hi’.* *Baina eztau ‘hiek’ bat. Hika danairi egitteko aditzik etxaon. Eta orduan, klaro, juntaitten dittun batzuetan ‘hi’ egitten dostazun personak eta ‘zu’ egitten dostezunak. Eta arrarotasun hori sentituen xonat, bai. / Sentsaziño hori, hi eta zu nahasketan diranian arraro sentitte hori bai, nik hori bizitten xonat. Egixa don batekin ‘hi’ egitten dodalako taldeko beste bati be ‘hi’ egitten hasten banaiz, beorrekin hori adostu barik, beti eukitten xonat zalantzia, ezta? Zela hartuko ete dau?...*

Nokari buruzko gaur egungo ikuspegia

Elkarrizketatutako hiztun gehienek hitz egin digute konplexuez eta hitanoaren gaineko uste negatiboez, baina ahaldunduta sentitu ditugu ia denak, noka egiteko eta defenditzeko gertu. Deialdiak izan duen harrera ona da horren adierazle: ia denek esan zuten baietz, eta ez da erraza kameraren aurrean jartzea, iritzia ematea eta transmisioan izan den eten horretan izandako erantzukizunak partekatzea.

Maria Angeles (Araotz, 1946), Jesusa (Araotz, 1947) eta Mari Tere (Araotz, 1948) *Lehen konplejua geukanak oin xakonau... -Oin harrotasuna! -Harrotasuna be ez... oiñ balorau egitten dogula natural urteten doskuna.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-239-034/>

Karmen (Triana, 1936) *Hori, harrotasun hori pittintxo bat bai, e. Pittintxo bat. Emuten dotsu... 'Gara', emuten dotsu 'hemen gauz'.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-252-040/>

Ana Mari (Araotz, 1944) *Personalidade bat emuten dau neretako, e.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-259-037/>

Esan beharra dago herriguneko elkarrizketatu batzuei kostatzen zaiela hika dakitela onartzea, baserritarren kontua zela uste zutelako, eta ez zutelako begi onez ikusten. Are gehiago, ez ziren konturatzen hika zebiltzanik ere. Proiektu honen harira konturatu ei dira:

Mari Tere (Kanpantxo, 1928) *Gero akordau gara. Oiñ. 'Eta guk hikin egitten dogu berba?' Ta: 'Keba, geuk ez dou egitten hikin', eta geu konturatu bai, eta: 'Ikusten don? Ze esan xonau ba?' Holaxe akordau gara!* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-282-003/>

Kontxi eta Mari Tere (Kanpantxo, 1928) *-Ez xakun gustaitten. -Pentsaitten neben basarritarrana zala hori. -Entzun, zea da, baina... araoztarrak, menditarrak eta a menos. -'Geizki emuten xon horrek, hola berba egittiak'. Emakume artian. 'Oiñ, gizakumiak ondo dau, baina emakumiak gaizki emuten xon!'. Hoixe, hoixe esaten oskun, baina gu zela geuzen ya akostunbrauta horrekin, hori kentzeia guretako zaila! - Baina geure artian bakarrik. Guk beste lagun batzuk ta aldekuak o beste ingurukeri be danari 'zu' esaten gotsan, e. 'Hi' ez, e.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-282-014/> / *Ba emakumiak artian pentsaitten gebelako baldarra zala. Bai, baldarra edo... Zakarra. Emakumiai gaizki emuten xauela hori berba hori edo. Hori da, holako zeren bat. Hola berba egitten dauenari: 'Basarritar haundi bat don hori! Horrek etxakin berbetan be!'. Geizki ze eindda geontzen.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-282-030/>

Hitanoari buruzko gaur egungo pertzeptzioaz galdetuta, elkarrizketatu gehienek esan dute ikuspegia asko aldatu dela, eta orain ez dela begi txarrez ikusten, bereziki gazteen artean. Gaur egun haizea alde dutela ikusten dute.

Belen (Arantzazu, 1963) *Nik uste dot enbidixia emuten dogula o modan dau edo, bai.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-023/>

Mila (Arantzazu, 1949) *Neri gehixau oin e, batez be. Igual gaztiak-eta baten batek esan dost: 'Jo, gura neke zure moduan hika jakittia', baina lehenau ez, ez dosku iñok, neri behintzet ez dost iñork ezer esan.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-242-023/>

Marije (Murgixa, 1956) *Gaztien ikuspegittik baxaon halako e nunbaitt trasmisiño hori egon don: 'Hau gure-gure itteko', hika ittia be badala, e, ez? Hor baxaon halako rebeldiakin lotutako puntutxo hori.* <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-254-054/>

Ane (Murgixa, 1993) *Ba bai, neretzako bai da 'plus' bat. Ni erakarri egitten nau horrek, ohitura horrek.*

Aintzane (Kalia, 1981) *Gaur egun etxonau klasifikaitten bata hobia o bestia hobia, ta gaiñea klasifikaitten hasi ezker, nik kontrako aldera klasifikauko neke. Esango nixonan: "Jo, ba hik bai ondo!", ez?*

Alaia (Uribarri, 1985) *Pentsaitten dot oso positibua dala hikan ingurukua. Ez dala zakarragua da edo baldarragua da edo uf, hori ez da guretako modukua. Ez. Ta gizonen artian be uste dot... danontzako dala positibua, zeoze lagunartekua, konfiantzako hizkuntza bat moduan dala, ez? / Azkenian neretako sustarrak, sustarrak ezinttula galdu. Nik uste dot inpulsauko balitzake, ez, danon artian inddarra emungo bagotsake, atzera asko bueltako litzakela.*

Maidier (Uribarri, 1975) *Hor hazixak ereitten hastia don eta politto-politto ba zabalduko litzuken!*

Nerea (Murgixa, 1977) *Bai, jarten bada modan moduan neskan artian ittia be bai, ba eske kriston inddarra hartu leke. Mutillan berdin.*

Irati (Kalea, 1999) *Egixa esan, kuadrillan egiñ ahal izatia ondo egongo zan.*

Edurne (Garagaltza, 1958) eta Mertxe (Arantzazu, 1956) *'Xaukena xauk!' Bai, hori bai, 'Xaukena xauk' hori alde danetan. -Bueno, 'Ingo Xonau' be sartzen doia. Bai. 'Ingo Xonau' be badoiala sartzen... <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-261-036/>*

Eli (Zubillaga, 1947) *Eta hau dala eta ez dala ba asko komentau dou, ezta? Eta nere alabiak: 'Ze penia, ama. Egin guri be, ez?' Bueno, ba igual hasiko naiz. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-250-009/>*

Hori bai, 50-60 urtetik gorakoen artean oraindik ere entzuten dituzte komentario negatiboak tarteka. Baserriz baserri emakume nokadun bila ibili direnek ere igarri dute nokaren desprestigio hori bizirik dagoela oraindik (datu-biltzaileen atalean ere aipatu dugu, [26. orrian](#)).

Joxepi eta Mariaxun (Aurrekomendi-Garibai, 1936) *Kalian egoten garien lagunak badaku batzuk etxatenak gustaitten... 'Puff, zelako zakarra dan'. Zatarra dala, hika zatarra dala. <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-268-019/>*

Maidier (Uribarri, 1975) *Auzuan galdezka ibili naizenian, etxe bat baino gehixautan esan xostanai: 'Buf, guk ezta pentsau be!' Edo beste batek ba bastua zala, edo zakarra zala... edo bai, idea hori baxaon. Emakumien artian behintzet baxaon. Hika ittia, buf, errespetu faltia dala... holako komentarixuak entzun xostienat bat baino gehixaori. Eta argi xaon hor egon dala hikaren kontrakotasun bat, ezta? Eta klaro, ba argi dau emakumiengan eragin haundixagua eduki dauela gizonen artian baino.*

Aipatzekoa da baita ere hitanoaren erabilera ez dela beti bera izan. Elkarrizketatuek gorabeherak izan dituzte erabileran. 70eko hamarkadan euskararen susperraldia etorri zenean, hitanoaren susperraldia ere etorri zen kasu batzuetan, nahiz eta ez zen oso orokortua izan. Hori da Zubillagako emakume-kuadrila baten kasua eta baita euskalgintzan murgilduta egon diren elkarrizketatu batzuen ere. Hizkuntza-kontzientziaren eraginez eta sustraiak berreskuratzeko hasi ziren hika egiten. Adibiderako:

Beatriz (Torreauso, 1948) *Hor ni konturatu nitzan 17 urtekin edo, ez dakitt hortxe ez? Erderaz barra-barra eitten gebela eta orduan erabaki neben ba bueno pues euskeraz,*

‘euskeraz dakixenakin euskeraz eingo dot’. Eta orduan hasi nitzan ya horretan. Eta uste dot hikako kontu hori be orduan etorri zala, baina ez naiz akordaitten oso ondo zela.
<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-246-012/>

Araoztarren kasua berezia da. Esan dugu hitanoa auzo horretan gorde dela ondoen, baina kaletartze-prozesuarekin batera transmisioa eten egin dela. Hitanoa identitate marka bat da araoztarrentzat, euren bereizgarrietako bat: elkarrekin hika egiten jarraitu dute, herrira bizitzera joandakoan ere. Izateko moduak eta hizkera bereziak taldea indartu du. Araoztarrak izatearen harrotasuna landu dute, desprestigioari aurre eginez, baina gehien-gehienek ez diete seme-alabei hika egin (kasu askotan ez semeei eta ezta alabei ere). Izan ere, seme-alabak ez dira araoztarrak.

Hori bai, araoztarrek beren edade ingurukoekin hika egin dute, eta herrian badira haiei esker hitanoa ikasi eta berreskuratu dutenak ere (gehienak baserri-auzoetakoak, bakarren bat kaletarra). Adibiderako, Olabarrietako emakume batek Araozko bi lagunekin bakarrik egiten du noka, abesbatzako lagunekin. Beste batzuek lanean hasi dira erabiltzen, araoztarrak lankide izanda. Araoztarrekin ez ezik, Arantzazukoekin, Larrañakoekin eta Olabarrietakoekin ere gertatu da hori, hitanoaren erabileran modu positiboan eragin dutela, neurri txikiagoan izan arren.

Jasotako testigantzekin nokaren bilakaerari buruzko dokumental laburra prestatu dugu, 25 minutuko bideoa. Sarean dago ikusgai: [Oñatin emakumien hika zeatik fan da galtzen?](#)

3. LABURBILDUZ: DATU ESANGURATSUENAK

Ikerketaren bi ildoak bateratuta, hauek izango lirateke atera ditugun datu esanguratsuenak:

1. **Oñatiko gutxienez 370 emakumek dakite noka** gaur egun, 16 baserri-auzoetan jasotako datuen arabera. Herrigunekoak zenbatuz gero, gehiago izango lirateke.
2. Herrigunetik urrutien dauden eta industrializazio handirik jasan ez duten auzoetan gorde da ondoen noka, baserri-giroan. Emakume nokadun gehien duten auzoak **Araotz (88), Olabarrieta (49), Murgixa (41) eta Arantzazu (40)** dira. Araotzen 37 baserrian gorde da, Olabarrietan 23, Arantzazun eta Murgixan 15 eta Zubillagan 14 baserri/etxetan. Araotz da noka ondoen gorde den auzoa (baserrien %80); Arantzazun (%53) eta Murgixan (%50).
3. Baserri-auzoetako **emakume nokadunen %77 auzotik kanpo** bizi dira. Oso gutxi dira gaur egun auzoetan jarraitzen dutenak: **%23** bakarrik. **Baserri-auzo batzuk husten joan dira**, bereziki herrigunetik urruti geratzen direnak: Araotz (11 nokadun), Arantzazu (1), Urruxola (0)...
4. Araozko emakume nokadunak **50 urtetik gorakoak** dira. Noka erabiltzen duen neska gazterik ez dago. Transmisioaren etena ageri-agerikoa da, beraz. Emakume nokadun gehienak auzotik kanpora bizi dira eta haien seme-alabak kaletarrak dira.
5. **Elkarrizketatutako ia denek, 50 lagunek, etxean ikasi dute noka**: 32 hiztunek gurasoengandik zuzenean jaso dute, eta 18 hiztunek zeharka: hitanoa beren familia-giroko parte izan da.
6. Gurasoek hika egin ez dietenen kasuan, gero beraiek ere seme-alabei ez diete transmititu. Baina zuzenean jaso dutenetako askok ere ez dute transmititu. **Transmititzeko aukera izan duten 48tik 30ek ez dute transmititu (%62,5).**
7. **Elkarrizketatutako gurasoen %69k ez dute seme-alabekin hika egin** (29 hiztunek: 27 emakume eta 2 gizakume). Gainerako 13 hiztunek bai (%31), baina kasu batzuetan transmisioa ez da osoa izan (ez seme-alaba guztiei).
8. **Araotz da zuzeneko transmisioa ondoen gorde duen auzoa**. 16tik 14 dira zuzenean jaso dutenak, baina gero **7k soilik transmititu dute** hika, erdiak baino gutxiagok; gainera, horietako 5ek 70 urtetik gora dituzte, eta seme-alabei bai, baina bilobei ez diete transmititu.
9. Elkarrizketatutako 45 lagunetik 34 **%75 auzotik kanpora joan ziren bizitzera**. Haien seme-alabak kaletarrak dira.
10. Elkarrizketatutako 80 urtetik beherako gurasoen artean alabari eta semeari transmititu dien bakarra dago, eta **erabaki kontzientea** izan zen (hizkuntza-ohiturak aldatu zituen, modu kontzientean).

11. **Nokaren galeraren arrazoiak**, elkarrizketatuen arabera:

- Euskararen zapalkuntza: euskararen desprestigioa, erdararen aurrean
- Euskalkiaren desprestigioa, euskara batuaren mesedetan
- Hika 'baserritarren hizkera' moduan ikustea
- Hika mutilen kontu moduan ikustea: ez emakume finentzat
- Erregistroaren beraren mugak:
 1. Eremu intimokoa, gertukoekin bakarrik.
 2. Adinkideen artekoa: gurasoei eta nagusiagoei ez.
 3. Estatus jakin batekin lotutako erregistroa.
 4. Ume txikiei ez.
 5. Senarrarekin/emaztearekin ere ez.
 5. Taldean ere zaila.

12. **Nokari buruzko ikuspegia** aldatu egin da: gaur egun balorazio positiboa dauka, batez ere gazteen artean.

4. AMIA AZTERKETA

AMIA azterketa egin dugu, Oñatiko noka biziberritzeko orduan, zer ildo estrategiko jarraitu erabakitzeko baliagarri gerta daitekeelakoan:

<p>Ahuleziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nokak indar gutxi dauka tokarekin alderatuta: gutxiago ezagutzen eta erabiltzen da. 55 urtetik beherako emakume gehien-gehienek ez dakite, eta gizonezkoek ere ez. • Transmisioan etena gertatu da, etxeetan: seme-alabei (eta bereziki alabei) hika egiteko ohitura nahiko galduta dago. • Baserri-auzoetan gorde da ondoen eta gaur egun jende gutxi bizi da bertan. Gehienak herrigunean bizi dira, eta hitanoaren presentzia txikia da bertan, ez da ikusgarria. • Ikastetxeetan, hizkera formalari eta euskara batuari ematen zaie garrantzia handiagoa sarri. Bertako euskalkiko erregistro informala da hitanoa. Batuan bertan ere askotan ez dira hitanoko formak erakusten. • Hizkuntza-ohiturak aldatzea asko kostatzen da. • Ikerketa honi dagokionez, datuak ez dira ehuneko ehun zehatzak (datu aitortuak): <ol style="list-style-type: none"> 1. Hitzunen pertzeptzioetan oinarrituta daude (jakintza-maila bera izanda: batek esango du ez dakiela noka eta besteak baietz). 2. Oso zaila da auzo guztietako etxe/baserrietako hizkuntza-ohiturak ezagutzea. 3. Herriguneko daturik ez dugu bildu.
<p>Mehatxuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hitanoa mutilen kontua dela pentsatzea, eta ez neskena. Maskulinitatearen ikur moduan ikustea. • Gizonezko askok ez dakite noka: emakumeei toka egiten diete. Noka berreskuratzea emakumeen kontua dela pentsatu dezakete eta ez inplikatu. • Konfiantzari lotua dago hitanoa, oso eremu intimokoa da (bereziki emakumeen kasuan): berreskuratzeko orduan arazo izan daiteke, ez delako transmisio natural batez berpiztuko; erabiltzearen poderioz sortuko da konfiantza eta ez alderantziz. • Erabilera-ohituren mugak: gurasoei eta nagusiagoei ez, ume oso txikiei ez, senar-emazteen artean ez eta gizarte maila altuagokoei ere ez. Besteak errespetuz ez tratatzeko beldurra izatea. • Oraindik badaude hitanoa itsusia, errespetu gutxikoa eta baldarra dela uste dutenak, bereziki adinekoen artean. Desprestigioak sustrai luzeak ditu.

	<ul style="list-style-type: none"> • Hitanoa elementu identitarioa da, euskalduntasunaren “plus” bat, onerako zein txarrerako: baliteke herritar guztiak horrekin identifikatuta ez sentitzea (adibidez, euskaraz hitz egiteko ohitura handirik ez dutenak eta kaletarrak direnak). • Erdararen eragina handia da eta zuzenean eragiten du herritarren aisialdian (sare sozialak, telebista...) eta, horrenbestez, baita herritarren hizkera informalean ere. • Ikasteaz aparte, transmititzea komeni da. Bestela, berriz galtzeko arriskuan egongo litzateke; gauza bera gertatuko litzateke hurrengo belaunaldian. Transmisioan eragitea komeni da eta horretarako hitanoko hitzunek kontzientzia izatea, transmititzeko (ez erabiltzeko soilik). • Askotan ez dakigu noka nork dakien eta nork ez: nokatzaileen ikusgarritasun falta. • Hitzunak euskararen osasunaz ez ezik, hikaren osasunaz arduratzea eskatzen du. Esfortzu bikoitza batzuentzat.
Indarguneak	<ul style="list-style-type: none"> • Oñatin euskararen egoera ona da, kale-neurketen arabera. Euskararen erabilera ez dago arrisku larrian. Proiektu hau ezin da edozein tokitan egin: Oñati euskararen arnagune bat da eta hitanoa biziberritzea posible da. • Oñatiko euskararen bereizgarri bat da hitanoa, hiztunari nortasuna ematen diona. “Xaukena xauk” (esapide zuzena izan ez arren) Oñatiko marka bihurtu da herritik kanpora: “Oñatiarra? Xaukena xauk!”. • Hitanoa bizirik dago Oñatin, inguruko herri gehienetan baino egoera hobean. Euskal Herriko herri askotan desagertu egin zen edo galzorian dago. Oñatin bizirik dago gazteen artean ere, mutilen artean soilik bada ere. • Noka ere bizirik dago, batik bat 55 urtetik gorakoen artean. Auzoz auzoko datu-bilketaren arabera, gutxienez 370 emakumek dakite noka Oñatin. Herrigunean datu-bilketarik egin ez denez, kaletarrak batu behar zaizkio kopuru horri: nokadunak gutxienez 400 emakume izango lirateke, Oñatiko emakumeen %8. • Oñatiko noka eta hitanoa jaso eta biziberritzeko proiektua herri-ekimenetik sortu da. Herritar talde baten kezka ondorio da (eta emakume nokadunik ez zegoen tartean). Herrian interesa dago gai honekin. • “Ingo Xonau!” proiektuak oso harrera ona izan du emakume nokadunen artean eta hausnarketa eragin du: hitzunak hizkuntza-jarrez eta galeraren arrazoiez konturatzen ari dira. • Proiektua interesa sortzen ari da beste herri batzuetan ere (hitanoa bizirik dagoen tokietan batez ere): proiektu berritzailea da, aitzindariak gara.
Aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Hika dakiten emakume batzuk (irakasle profila dutenak) ikastaroak emateko prest daude.

- Badago noka ikasteko prest dagoen emakume multzo bat (adin desberdinetakoak) eta proiektuak interesa sortu du herrian.
- Badaude jakin bai baina erabiltzen ez duten neska gazteak ere (gehien-gehienak ez dira ikerketa-diagnostiko honetan ageri). Belarria eginda dutenak, etxean zuzenean edo (gehienetan) zeharka jaso dutelako. Erraz bihur daitezke erabiltzaile.
- Hitanoa etxetik kanpo ere transmititzen da, modu naturalean, sozializazio-eremuetan (aisialdia, kirola...). Familia ez da eremu bakarra. Aisialdian eragin daiteke.
- Ikerketa honek nokaren benetako egoeraz jabetzeko eta kontzientziatzeko balio dezake, herri mailan: ezer egiten ez bada, galdu egingo dela konturatzeko.
- Hitanoari buruzko ikuspegia aldatu egin da, bereziki gazteen artean: orain positiboa da.
 1. Mutil gazteen artean “guay” da (zuzentasuna beste kontu bat da). Nesken artean “guay” bihurtzeko aukera dago.
 2. Erabiltzaileak ahalduntzen ari dira: konplexuak kentzeko garaia da. Hizkuntza-jarrera aldatetako posible dira: seme-alabei, ilobei egiten hastea.
- Ikastetxeetan arduratuta daude ikasleen euskara mailarekin, erregistro informalean erdarara jotzeko ohitura dutelako (erdarakadak) eta herriko hizkera ere gero eta okerrago darabiltelako. Hitanoak hutsune hori bete dezake.
- Genero ikuspegitik, noka ikastea ahalduntzeko tresna bat izan daiteke emakumeentzat (galeraren zergatietako asko berdintasun faltarekin lotuta daude: ‘Berreskura dezagun ukatu zigutena’).
- Sare sozialek hitanoaren erabilera erraztu dezakete (e-maila, Whatsapp, Facebook, Instagram): gazteen artean ohiko komunikazio-bidea izateaz gainera, denbora gehiago dute idatzi beharrekoa pentsatzeko, aurrez aurre baino.
- Oñatiko Udala noka eta hitanoa bultzatzearen aldeko apustua egiten ari da.
- Gai gara proiektu sendo bat eraikitzeko eta tresna berriak sortzeko (jarduerak, materiala...). Egiten duguna eredu bihur daiteke beste batzuentzat. Alde horretatik, hutsune bat betetzera dator.

5. ONDORIOAK

Ikerketa honen ondorio nagusiak batu ditugu atal honetan, labur-labur:

- 1. Oñatin noka bizirik dago.** Oñatiko 16 baserri-auzoetako **gutxienez 370 emakumek dakite noka.**
- 2. Eten handi bat egon da transmisioan: 55 urtetik beherakoan artean ez da erabiltzen.**
- 3. Desprestigiatutako hizkera** izan da: baserriarren eta ezjakinen hizkeratzat hartua. Guraso askok seme-alabei ez diete hika egin (modu kontziente edo inskotzientean).
- 4. Noka galtzeak (eta toka ez) harreman zuzena dauka genero ikuspegiarekin:**
 - Emakumeak fina izan behar zuen, eta erderaz/zuka arituta finagoa zen. Mutilak hika egitea ez da egon hain gaizki ikusita.
 - Mutilek etxetik kanpo jarraitu dute hika egiten, aisialdian eta lanean. Emakumeen sozializazio modua desberdina izan da.
- 5. Hitanoaren berezitasunek ez dute transmisioan laguntzen: ezin zaio edozeini egin** (ume txikiei, gurasoei, adinekoei, senarrari/emazteari, ezezagunei... ez; taldean erabiltzeko ere ez da aproposa, noka, toka eta zuka nahasten direlako).
- 6. Gaur egun hitanoari buruzko ikuspegia positiboa** da orokorrean, eta mutil gazteen artean modan dago. Neska gazteen artean ere badago interesa, eta gero eta ahaldunduago daude.

Ingo Xonau! proiektua aurrera eramateko **momentu aproposa** da: ikerketa hau herritarren kontzientzia pizteko eta noka biziberritzeko akuilua izan dadin lortu behar dugu.

Azkenburuko oharrak

Ikerketa honetarako metodologia eta lan-molde propioak sortu ditugu, eta ez dugu beste ikerketa batzuetako erreferentziarik erabili. Hori bai, egon badaude nokari buruzko ikerketa interesgarriak, lan hau osatzeko eta aberasteko balio dutenak (ikus <https://www.hitanoaz.eus/hitanoaren-gaineko-ikerketak>). Besteak beste hauexek:

Legorburu, Onintza (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak. Ikasketa feministak eta generokoak masterra. [Hemen Master amaierako lan osoa](#)

Bereziartua, Garbiñe eta Muguruza, Beñat (2018). Erabileraren gakoak egoera informaletan eta gazteen artean: hitanoa Azpeitiko gazteen artean. *Hermes*, 60, 24-28. [Hemen artikulua](#)

Muguruza, Beñat eta Bereziartua, Garbiñe (2018). Hitanoari begira soziolinguistikatik: erabilera eta funtzioak. "Hizkuntzak, Ondarea eta Identitateak. Hezkuntza ikuspegia" kongresuko aktarako prestatutako artikulua. [Hemen artikulua](#)

Ozaita, Josu (2014). Tolosaldeko gazteek (16-28) hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktika. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103. <http://www.soziolinguistika.eus/node/6221>

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkiet ikerketan parte hartu eta lagundu duten guztiei: Irati Lizeaga lankideari, *Ingo Xonau!* lantaldeko kide guztiei, 54 elkarrizketatuei, datu-biltzaileei eta informatzaileei, udal euskaltegiko langileei, udaletxeko langileei eta kontaktuak/informazioa eman didaten guztiei. **MILA ESKER!**



6. ERANSKINAK

6.1. Noka gorde duten baserriak

Auzoz auzoko zerrenda honetan ez datoz baserri-auzoetako baserri guztiak: emakume nokadunak bizi (izan) direnak bakarrik datoz. Ikerketa-diagnostikoan sakontzeko baliagarria gerta daiteke zerrenda hau, posible baita baserri-auzo horietan emakume nokadun gehiago egotea, oraindik identifikatu gabe.

Kanpoan bizi da gaur egun (4-3 → 4 emakumek dakite noka eta horietako 3 auzotik kanpora bizi dira gaur egun)

ARAOTZ

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Madinako Aldekoa	1*
Garaiko Txikia	4-3*
Azpiko Handia	3*
Azpiko Txikia	4*
Azkitin Handia	2*
Madinabeiti Goikoa	2*
Madinabeiti Behekoa	3-2*
Lurgorrieta	3*
Otalora Handia	3*
Otalora Txiki	1*
Txantomalduena	3*
Itxatxo	1
Erramuena	2*
Enparantza	1
Aratzurti Goikoa	3*
Amiamena	1*
Txapelena	2-1*
Beitikoa	2-1*

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Etxeberri Txiki	1*
Agerre Garaikoa	3-2*
Zumalde	1*
Erreka Txiki	1*
Errementegi	3*
Elorto	1*
Etxeberri	3*
Handikoetxe	3-2*
Txantonena	3*
Txurdiñena	1*
Sakristauena	1*
Txomena	5-3*
Haugi	1
Antzuena	2*
Aizkorbe Azpikua	5*
Andreta	2*
Migelen Txikia	6*
Migelen Handia	4*
Aizkorbe Goitiko	1*

ARANTZAZU

BASERRIA/ETXEA

NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA

Arrikrutz Erdikua	3-2*
Arrikrutz Behekua	1*
Arrikrutz Goikua	3*
Gesaltza Garaikua	1*
Aizkirri Behekua	4*
Aizkirri Garaikua	3*
Arendui	4*
Arrola Goikua	3*
Begiolatza	2*
Zapiarbe	4*

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Milikua	2*
Azpileta Behekua	3*
Azpileta Goikua	1*
Sindika	1*
Kortakogain	5*

BEREZAO

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
San Jurgi	3*
Agerre	1
Ertzil	2
Etxebarri	1*
Mendikua	2*
Itxatxo	2-1*
Bidegain I	1
Kapaingua	1
Lizarralde	2-1*
Linetzibar errota	1*

GARAGALTZA

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Albarditzaga	1
Gaztelondo	1*
Kurpide	2-1*
Garagaltza Haundi	1
Kamaramuño	2-1*
Zuazolako errota	1

GARIBAI

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Migelen Txikia	1*
Dolaetxe	2
Kastillokua	3*
Gorospizkar Azpikua	2*

Gorospizkar Garaikua 1*

GORIBAR

BASERRIA/ETXEA NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA

Kanpiazelai II 1

Urbietta 1

Ugartondo 2*

Berotegi 1

LARRAÑA

BASERRIA/ETXEA NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA

Antzuelas Beiti 3*

Korta 2*

Errekalde 3*

Elordui Behekua 4*

Elordui Goikua 5-4*

Leibar 3-2*

Uriko Garaikua 3*

Joxiuna 2-1*

Irazabal Haundi 2*

LEZESARRI

BASERRIA/ETXEA NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA

Altzibar Garaikua 1

Urrintxo 1*

Zokoa 1

MADALENA

BASERRIA/ETXEA NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA

Anduagakua 1

Santurukua 1

Balantzategi I 4*

Balantzategi II 1

Pardioskua 5*

Goitikua 1

MURGIXA

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Murguzur	1
Murgialdai-Altube	3*
Murgialdai-Galdos	4*
Murgiko errota	2*
Jargikua	3*
Estenaga	2
Juanikogarrena	2*
Bixain	1
Arretxe	4-3*
Maala	2
Kamelakua	4*
Elorrixa	2-1*
Azkarreta	4-3*
Iziargoikua	3-2*
Umerez	4-2*

OLABARRIETA

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Aiastui Goikua	2-1*
Aittape	1*
Aldabe	2-1*
Alusta-Bernalena	2
Amiño	1
Andolatza	1
Arotzena	2-1*
Artxubi	6*
Basazabal Goikua	3-2*
Billar haundi	3*
Errementerikua	1
Erretxin	3-2*

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Etxaingua	1
Etxeberri	4-3*
Funduarte	3*
Jurgiña	1*
Legarre	1*
Mangaikua	2-1*
Santzakua	1*
Simonena	4*
Sustiabe	1
Tabernia	1*
Zeriaga	3-2*

TORREAUZO

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Munazategi	1
Elazarraga	1
Torrekua	2-1*

URIBARRI

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Aingerukua	2*
Azkarraga Erdikua	1*
Azkarragako errota	1*
Gogordo	1*
Konkena	1
Otadui Txiki	3*
Sagastizabal	1*
Sakona	1
Soldadukua	3-2*
Urrumangua	1

URRUXOLA

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Urruxolako errota	3*

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Olate	4*
Barrenetxe Txiki	3*
Barrenetxe Haundi	3*
Estañokua	1*
Garaikoa/Bañu-etxe	4*

ZAÑARTU

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Belaskua	1*
Etxezuri	2*
Zelako Goikua	1*
Ditxosuena	1

ZUBILLAGA

BASERRIA/ETXEA	NOKA DAKITEN EMAKUME KOPURUA
Zubillagako Errota	1*
Arretxe Haundi	1
Gure Ametsa I	1*
Gure Ametsa II	1
Altuna Etxeak	1
Altuna Enea Behea	5-2*
Altuna Enea Lehenengoa	1
Arotzena	1*
Kukarruena	2-1*
Gure Kabia	1
Alkorta	4*
Askazubi	5-3*
Desagertutako etxeak	5*

6.2. Elkarrizketatuen zerrenda

ARAOTZ

Joxepa Zumalde. 100 urte. Migelen Txikia

Bittori Goitia. 91 urte. Gerneta Etxeberri

Enkarna Grisaleña. 91 urte. Txomena

Frantziska Erostarbe. 88 urte. Etxetxo

Xeferi Erostarbe. 86 urte. Agerre Garaikua

Jesusa Zumalde. 73 urte. Aizkorbe Azpikoa

Mari Tere Azkoitia. 71 urte. Azpiko Txikia

Maria Angeles Zelaia. 72 urte. Elorto

Ana Mari Zumalde. 75 urte. Migelen Txikia

Nati Zumalde. 73 urte. Migelen Txikia

Eugeni Zumalde. 70 urte. Migelen Txikia

Arantxa Zumalde. 68 urte. Migelen Txikia

Mirari Guridi. 64 urte. Txomena

Agurtzane Zumalde. 63 urte. Aizkorbe Azpikoa

Koldo Zumalde. 62 urte. Aizkorbe Azpikoa

Marixol Bolinaga. 56 urte. Beitti

ARANTZAZU

Mila Maiztegi. 70 urte. Arrikrutz

Karmen Zurutuza. 68 urte. Arendui

Mertxe Arregi. 66 urte. Azpilleta

Edurne Zurutuza. 65 urte. Arendui

Mertxe Odriozola. 63 urte. Aixkirri

Bernardo Zurutuza. 61 urte. Arendui

Belen Zumalde. 56 urte. Gesaltza

OLABARRIETA

Maria Jesus Markuleta. 67 urte. Baxazabal

Pili Etxeberria. 59 urte. Etxeberri

Marilu Orueta. 57 urte. Junduartena

URIBARRI

Rosa Igartua. 67 urte. Sagastizabal

Maidier Irizar. 44 urte. Gorordo

Alaia Beitia. 34 urte. Otae Txiki

LARRAÑA

Pilar Guridi. 84 urte. Antzuelas Beittikua. Aurrekomendi

Pili Irazabal. 66 urte. Irazabal Haundi

TORREAUZO

Beatriz Irizar. 71 urte. Elazarra

MURGIXA

Mari Karmen Inza. 66 urte. Murguzur

Marije Ugarte. 63 urte. Azkarreta

Beatriz Ugarte. 58 urte. Azkarreta

Nerea Agirre. 42 urte. Iziar Goikua

Ane Ugarte. 26 urte. Azkarreta

ZUBILLAGA

Mila Mtz de Zuazo. 76 urte. Etxeillaria

Sara Mtz de Zuazo. 75 urte. Etxeillaria

Eli Igarzabal. 72 urte. Arotzena

Mariaxun Villar. 71 urte. Arretxe Haundi

GARAGALTZA

Edurne Olalde. 61 urte. Gaztelondo

GARIBAI

Joxepi Arregi. 83 urte. Koixkar Azpikua. Aurrekomendi

Mariaxun Arregi. 83 urte. Koixkar Azpikua. Aurrekomendi

Esperanza Aiausti. 77 urte. Koixkar Garaikua. Aurrekomendi

KALETARRAK

Mari Tere Etxeberria. 90 urte. Kanpantxo

Kontxita Biain. 90 urte. Kanpantxo

Mari Karmen Arriaran. 84 urte. Lekunbarri (Triana)

Jone Arriaran. 82 urte. Lekunbarri (Triana)

OÑATIKO NOKA: diagnostiko-ikerketa

Karmen Iñurritegi. 83 urte. Lekunbarri (Triana)

Nati Altube. 70 urte. Lekunbarri (Triana)

Kontxi Martinandiarena. 58 urte

Aintzane Agirre. 38 urte. Errekalde

Irati Barrena. 19 urte

Elkarrizketa guztiak hemen daude: <https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau/>

6.3. Hitanoari buruzko galdetegia

Hiru galdetegi mota prestatu ditugu lekukotasunak jasotzeko. Hauxe da hitanoari buruzko galdetegia (aditzak jasotzeko inkesta eta jardun librea jasotzeko galdetegia ere baditugu).

1. Datu pertsonalak

- Izen-abizenak
- Jaioteguna
- Zer auzotan jaio? Non bizi?
- Ezkondua? Bai/ez
- Seme-alabarik? Bai/ez
- Zenbat senide?

2. Umetan

- Zela ikasi zebeu hika?
- Zeinek egiten otsun hika (gurasuak, lagunak, aldekuak...)?
- Zenbat urtekin hasi ziñan ebaltan? Zeinekin egiten zebeu (anai-arrebak, lagunak...)?
- Familixan, gurasuak hika egitten ebein euren artian? Anai-arrebekin? Lagunekin? Aldekuakin? Seme-alabekin (tratu diferentziarik seme eta alaben artian)?
- Asko egitten zan hika zu umia ziñala? Orain baino gehixao (adib, amandria bizi zanian...)? Emakumiena eta gizakumiena berdin?
- Noiz erabiltten zan hika? Zein egoeretan? (testuingurua, praktikak, zeinekin...)?
- Nun ibili ziñan eskolan? Eskolan zer hizkuntza ebaltan zebein? Ikaskidiekin zela?
- Etxian galarazi al dotsue sekula hika egittia? Eta ezauketan zebeu beste ume batzuri?
- Zein zan euskerian egoeria? Kontrako jarrerarik bai?

3. Gaztetan

- Gaztetan hika ebaltan jarraitu zebeu? Zeinekin?
- Ezkonduari*. Nobixotan mutillakin? Eta ezkondu eta gero?
- Ama izan danari*. Seme-alabei bai? Seme zein alaba izan igual? Ezetz bada, zeatik?
- Ama izan ez danari*. Ilobei bai? Eta inguruko ume eta gaztieiri?
- Kalera bizittera fan diranei*. Kalian hikaren egoeria zein zan? Bazeukan hika zeinekin egin? Hika gutxiu egittia ekarri al eben horrek?
- Hika egittia zela ikusten ebein kaletarrak, zure ustez (gauza ona ala baserriko kontua)? Kalia vs basarrixa... konplejorik bai basarritarra izatiarren? Burlarik, gutxiu sentittia...?
- “Gutxiu ez izateko”, erderara joteko joeria batzuk... emakumien artian nahiko zabaldua egon da. Holakorik ikusi/bizi izan al dozu?
- Esan dotsue sekula ez hika egitteko (ez dala fiña, zakarra dala...)?
- Ezauketan dozu hika egittiari itzi xauen familixarik? Zeatik izan laiken?
- Eta euskeriaren egoeria zein zan? Euskeriaren kontrako jarrerarik ezautu dozu?
- Hika momenturen baten albora itzi zebela esan zeike? Eta zelabait mugatu (etxe barrurako itzi)?
- Euskeriaren susperraldixak (70eko hamarkadan) euki eben eraginik hittanuan?

4. Gaur egun

- Zeinekin ebaltan dozu hika oiñ? Noka ala toka gehixao?
- Ze egoeretan entzuten dozu hittano gehixen zure inguruan? Zeozekin lotuta (praktikak)?
- Gaztiei eta umiei egitten dostezu hika? Zeineri (mutil, neska)? Zeatik?
- Oñatin zerekin lotzen dala hika esango zeke?
- Zein da hikaren egoeria gaur egun? Osasuntsu dau? Emakumiak gutxiago?
- Hika ebaltia ondo ikusitta dau? Ze pentsaitten dau jentia zure ustez?
- Gaztiak ebaltan al daue hittanua?
- Gaztien artian ze pertzepziño? Mutilen artian (Antzuolako gaztiak: ‘guay’, ‘euskal label’, ‘plus’ bat... identidade maskulinuakin lotuta...)? Eta nesken artian?

-Gizakumien artekoa eta emakumien artekoa igual ikusten da? Zeatik? Emakumiak hika egittia zakarra dala ta holakorik entzuten/pentsaitten al daue baten batzuk ondiok?

-Zein da euskeriaren egoeria gaur egun? Batua-euskalkixak... nehikua egitten al da euskalkixa erakusteko? Gaztiak ondo egitten daue berba? Zuen berdin/diferente?

5. Orokorra

-Zeintzuk erabiltten daue hika generalian? (perfila: adina, euskaldun/erdaldun...)

-Zure ustez, zeatik fan da galtzen emakumien hika? Kasualidadia da ala egon dira arrazoi batzuk emakumiena galtzeko eta gizakumiena ez? Genero ikuspegitik badako esplikaziñorik?

-Gizakumiak entretenimendurako aukera gehixau eukan emakumiak baino (tabernia, apostuak...)? Libertade gehixau?

-Batzuk semieiri hika egin doste baina alabei ez. Zeatik?

-Beste batzuk ez transmitiu semiei ta alabei be ez. Zeatik?

-Hika mantendu dauenak zeatik mantendu dau? Ahaleginik egon da hor, kontzientzia bat, ala modu naturalian pasau da?

-Noiz ebalten da hika? Edozeinekin ebali laike? Zeinekin bai eta zeinekin ez? (errespetua, konfiantzia...) Etxeko animalixei hika (ar/eme)? Naturako elementuei (arbolak, lorak...)?

-Norbere buruari dok ala don? ("*Nik neure artian... gaur eurixa ingo xok*")

-Zuk zerekin lotzen dozu hika?

-Zuri ze emuten dotsu hika ebaltiak, zukak emuten ez dotsunik?

-Zer sentitten dozu beste emakume batzukin hika zabitzenian? Eta gizakumakin?

-Ze suposatuko leuke zuretzat hika galtziak? Eta noka galtziak?

-Ezauketan dozu "hittato egittia" espresiñua?

6. Gazteenei galdetzeko: Hika ebalten hasteko erabagixa eta prozesua:

-Nun eta zela ikasi zebeu hittanoz berba egitten? Etxian, kalia, zure kasa? Ze adinekin?

-Etxian inok egitten al dotsu/otsun hika? Eta zuk baten bati?

-Noiz eta zeatik erabai zebeu hika ebalten hasteia? Zerk bultzatuta?

-Lotzen dozu trantsizio hori, zure bizitzan emun zan beste aldaketaren batekin (amatasuna, bizileku aldaketia, kontzientzia linguistikua, emakume kontzientzia...)?

-Ahalduntze prozesu baten moduan bizi izan dozu noka ebalten hasteia? Antzuolako ikerketa baten arabera, gaztien artian hika ebalten hasteia "zelabaitteko boteretze" batekin lotuta egon laike...

-Zerekin lotu izan dozu hittanua zuk?

-Eta gaur egun, hika ebalten hasi eta gero, zerekin lotzen dozu?

-Goguan dakotzu trantsiziño hori? Kontau apur bat, hasierako sentipenak, zailtasunak, lotsak...

-Zure ingurukuak esan otsuen zeoze (animau, harritsu...)?

-Ze sentsaziño publikuan noka egitterakuan? Jentiaren erreaksiñorik eragin al eben/dau?

-Zeren arabera erabakitten dozu hika egiñ ala ez?

-Zeinekin eta ze egoeratan ebalten dozu hika? (Ze tipotako jentiakin?)

-Toka ebalten al dozu? Zeinekin? Zeatik? Berdin sentitten zara toka eta noka berbetan?

Ikerketa lan honen egileak eta babeslea:

